ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2009ko uztailaren 6a > Astelehena > VII. urtea > 240. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Askoren akatsa da uste izatea Txinan hemen bezala egiten direla negozioak"



**Alberto Bodero**
Txinaren gaineko aditua > 08

**G2a** **Errozioa ospatu zuen Arrasaten Al Andalusek** > 29

**EKONOMIA**
**Erreminta makina, krisi sasoian ate berriak zabalduz** > 03

**ARRASATE**
**Biteri plazaren etorkizunaren gaineko bigarren batzarra** > 15

**ESKORIATZA**
**Bi instalazio fotovoltaiko jartzen dabiltza eraikin publikoetan** > 19



**LEHIA ETA UMOREA** Txirritolinpiadek esku-hartze eta jakin-min handia piztu zuten Aramaioko San Martin jaietan. JOSETXO ARANTZABAL

**JAIAK** > SAN MARTIN JAIAK

# Aramaioarrak jaietan, txirristatik jaitsi barik

**JARRAIPENA** Koadrilek hartuko dute gaur jaien lekukoa eta giroari eusteko ardura, euren eguna da-eta

**ESKU-HARTZEA** Tortilla lehiaketak, Pantxoa eta Peioren emanaldiak eta Txirritolinpiadak, arrakasta > 12

**EZBEHARRA** > ERORKETA

## Ume bat jausi da Elgetan sei metroko altueratik

Atzo, domeka, bi urteko neskatila bat "antza egoera txarrean zegoen hesia askatu" eta sei metrotatik behera jausi zen; Bilbora eraman zuten anbulantzia medikalizatuan > 04

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 08
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**PILOTA** > LAU T´ERDIKOA

## Mendizabal txapel barik Elgetatik

15 eta 22 irabazi zion Ricok antzuolarrari; kadeteetan, Jaka izan zen garaile > 21







Bernardo Atxagaren nobela berria sinatuta nahi?

Zoaz 7. orrialdera


IRITSI DA
MERKEALDIA
GORBEIA
MERKATARITZA PARKERA
Zatoz eta eskuratu itzazu
%30, 50, 60ko deskontu harrigarriak,
baita %70eko deskontuak ere!
LUXUS SPORT CARS - ISKIA - ULANKA - ZAPARRASTRILLO - CORTEFIEL - WOMEN´SECRET - DOUGLAS - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD
EL BROCHE - AUTOS GP - UNITEC MOVISTAR - ATENCIÓN AL CLIENTE CARREFOUR - VEGA - PRENSA - ESPACE COIFFURE - INMOBILIARIA GORBEIA
WANAKA - ORO VIVO - GODO´S – SLIDE - TRIP BISUTERIA - KAVA - SPORTWELL - REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ - PIMKIE - GAME - SUN PLANET
SWATCH - NATURA - VODAFONE - BIJOU BRIGITTE - ORANGE - ADMINISTRACION LOTERIA – ONCE - BARCELO VIAJES - ASERPLATA - VITAL KUTXA
GRECIA - AMAZONAS - LA RAPA - CEYLAN CAFÉ Y TE - LAHORE - OSCAR G - MODAS ATENEA - EOLO 23 - FARMACIA - TRIP - FOOT LOCKER - SEPHORA
M2 CAFETERIA - M2 - KURRUSKO - GAMBRINUS- OKETA - KEBAB - KIOSKO GOXOA - TÚNEL DE LAVADO - CARREFOUR - DECATHLON - BRICO DEPÔT
MCDONALD´S - YELMO CINES GORBEIA 3D - NORAUTO - KING JOUET – MUEBLES MAX DESCUENTO – MERKAL CALZADOS - SPLAFF! - SAMIRA - CIMER
gehien aurrezten duzun tokia
GORBEIA
ESKORIATZA 10 minutuan.
ARRASATE 13 minutuan.
BERGARA 16 minutuan.
SORALUZE 21 minutuan.
EIBAR 23 minutuan.
GORBEIA
errazago, bizkorrago, erosoago, merkeago
Etxabarri Ibiña
IRTEERA
AP - 1 EIBAR -GORBEIA
(GASTEIZ)
Carrefour
DECATHLON
Norauto
i'm lovin' it
BRICO DEPÔT
PRECIOS BAJOS TODOS LOS DÍAS
merkal calzados
King Jouet
YELMO CINES DIGITAL 3D
GORBEIA
MUEBLES MAX DESCUENTO
SPLAFF!
CIMER
el outlet del electro
SAMIRA
FASHION OUTLET

**EKONOMIA** > ENPRESA

# Erreminta makina, krisi sasoian ate berriak zabalduz

**SORALUCE** Egubakoitzean inauguratu zuen kooperatibak Osintxun neurri eta indar handiko fresatzeko eta mandrinatzeko makinen planta berria

**BERANDUAGO** Erreminta makinaren sektorean beste esparru batzuetan baino beranduago hasi dira sumatzen krisiaren eragina

**IRTENBIDEAK** Lehiakorragoak izatea eta horretarako gune geografiko edo sektore berriak garatzea dira krisiari buelta emateko modu batzuk

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Krisiaz baino berba egiten ez den sasoian, enpresa alorretik bestelako berriak iritsi dira. Danobat Groupeko eta Mondragon taldeko Soraluce kooperatibak neurri eta indar handiko fresatzeko eta mandrinatzeko makinen planta berria inauguratu zuen egubakoitzean Osintxun. Txus Alzaga kooperatibako lehendakariak inaugurazioan esan zuenez, "2000. urtean hirugarren planta zabaldu genuen eta krisiaren hasiera izan zen; orain, 2009an, krisi betebetean beste planta bat inauguratu dugu. Agian beste enpresak beldur dira guk lantegi berriak zabaltzeko".

Planta berriak 2.000 metro koadroko azalera du, 122 metro da luze eta 21 metro garai. Eraikuntza berriak ahalbidetuko du bederatzi metrora arteko ibilbide bertikaleko makina handiak egitea. Lantegiaren hiru erronka nagusiak dira produktuen gama zabaltzea; bezero sektoreen garapena, eoliko eta trenbideena batik bat; eta merkatu geografiko berrien garapena, Errusiako eta Indiako presentzia bultzatuz.

**KRISIAREN AURREAN AUSART**

Etorkizunerako apustu handia egin du Soralucek krisi sasoian erreminta makinako lehen lerroan kokatuz. "Ausartak izan gara krisi garaian planta bat inauguratzen, baina era berean krisitik ateratzerako prest egoteko modua ere bada. Guretzat oraindik nahiko ezezagunak diren neurri eta indar handiko fresatzeko eta mandrinatzeko makinetan sartzen gara, baina aurrea hartuko diegu beste enpresei taldean lan eginez", esan zuen Alzagak.




Soraluce kooperatibako langileak Osintxuko bulegoko atean; laugarren planta inauguratu dute han. IRATI AGIRREAZALDEGI

Berrikuntzak egin arren, Soralucen ere, erreminta makina sektoreko beste enpresetan moduan sumatu dute krisiaren eragina. Alzagaren esanetan, "orain arte ondo ibili gara, eskaerak lehendik geneuzkalako, baina orain hasi gara igartzen mundu guztia gaizki dabilelako. Poliki-poliki jaitsiera motelduko dela uste dugu eta igoera azkar etortzea espero dugu".

**ERREMINTA MAKINA KRISI SASOIAN**

Debagoienean Fagor Arrasatek ere erreminta makinan dihardu eta Felix Remirez zuzendari komertzialaren esanetan, "automobilen salmentak mundu guztian egin du behera %20 eta %50 artean; altzairugintzan 1.000 milioi tonako ekoizpena aurreikusten da, iazkoarekin alderatuta txikiagoa, 1.300 milioi izan baitziren; eta etxegintzaren beherakadak etxetresna elektrikoen salmenta jaitsi du. Hortaz, hori guztia ekoizteko makina gutxiago behar da".

Antzuolako Oerlikon-Balzers-Elay-n egiten dute erreminta makina erabiltzaileendako produktu bat; hortaz, euren egoera zuzenean lotuta dago erreminta makinaren sektorearekin. Nagore Jimenez zuzendari komertzialaren esanetan, "krisia sumatu dugu, gogor eta beste alor batzuetan baino beranduago. Iazko azaroan sumatu genuen zerbait gertatzen zela eta bat-batean etorri zen gainera. Gauzak ondo joatetik hilabete batetik bestera jaitsiera nabarmena izatera pasa ginen. Gero horretan mantendu gara, beherago ez gara joan".

**BERANDUAGO SARTU ETA IRTEN**

Soraluceko zuzendari gerente Rafael Idigorasek azaldu digunez, "Azken hiru urteetan Erreminta Makinan kontsumo errekorra izan da mundu osoan eta gure kasuan fakturazioa bikoiztetik pasa gara. Gure makinen epeak sei eta 12 hilabete artekoak dira eta aurreko urteko eskaerak entregatzeko dauzkagu oraindik. Baina gogor nabaritzen dugu Erreminta Makina sektore guztian jendea beldurtuta dagoela eta inbertsioak eta eskaerak geldi daudela bai Europan eta baita Japonian ere. Guretzat datorren urtea ere txarra aurreikusten da eta adituen esanetan 2011n hasiko da buelta ematen".

Fagor Arrasaten 2008ko azken hiruhilekoan hasi ziren sumatzen krisiaren eragina, beste sektore batzuetan baino beranduago. " Aurreko krisi batzuetan erreminta makina lehena izan da. Baina ziurra dena da krisitik ateratzen azkenetarikoa izango dela. Eskaria egon behar da enpresek ekoizteko eta horretarako makinak behar izateko. Ez dirudi 2012ra arte gure sektorea bideratuko denik", dio Felix Remirezek.

Espainiako Erreminta Makina Ekoizleen Elkarteak 2009 urtea zaila izango zela aurreikusi zuen iazko azken hiruhileko jaitsierei erreparatuta eta izaten dihardu. Hala ere, sektorea euren pentsatzeko makinak martxan ipintzen dihardu buelta emateko.

KRISIARI AURREA HARTZEKO NEURRIAK

## Kanpora zabaldu ala beste bide berriak jorratu?

Krisiak mundu zabalean du eragina eta batzuek kanpora jo arren, beste neurri batzuk ere hartu dituzte. Soralucek %90 saltzen du kanpoko merkatuetan "gehien bat Europara, baina gero eta gehiago ekonomia eta politika Asiara mugitzen dabil eta guk ere merkatu hori azken urteotan gogor landu dugu, eta aurrerantzean ere landuko ditugu", dio Rafael Idigoras zuzendari gerenteak.

Oerlikon-Balzers-Elay multinazional baten barruan dago eta 90 zentro dauzka munduan barrena; hortaz, "gure lana mundu guztian dago eta krisia mundu osokoa da. 90.eko hamarkadan herrialde batzuetan ez zen igarri, baina oraingoan denean sumatu da jaitsiera", esan digu Nagore Jimenez zuzendari komertzialak.

**AUKERAKO IRTENBIDEAK**

Soraluceko Txus Alzagaren ustez, "irtenbide bat izan liteke kanpora joatea, baina beste bide garrantzitsu bat da ausartak izatea, momentu hauek aprobetxatu behar dira gauza berriak egiteko".

Jimenezen esanetan, "gure ahalegina zuzendu dugu zentzua erabiltzera, dugun dirua ondo kudeatzera, gastuak murriztera eta salmenten kudeaketa berezia egitera margen handieneko sektoreetan zentratzen".

Fagor-Arrasateko Remirezen ustez hiru neurri hartu behar dira: "kostu operatiboak jaistea; lehiakorragoak izatea merkatura epe prezio eta kalitate hobea eskainiz, eta eskariak egon daitezkeen tokira bila joan. Gurea bezala nazioartera zabaldutako enpresek aukera gehiago izango dute".



Balzers-Elay lantegiko beharginak egubakoitzean lantegian. BALZERS-ELAY

## Balzers-Elay 25 urteko elkarlanaren oinarri

Uztailaren 5ean, orain dela 25 urte, zabaldu zituen ateak Balzers-Elay lantegiak, Liechtesteingo Balzers herriko enpresa baten teknologiak harritu eta harekin bat eginda. Urteurrena ospatzeko ekitaldi bat egin zuten egubakoitzean eta 25 urtean eta oraindik enpresan lanean dauden Juan Carlos Zengotitabengoak, Iñaki Toledok, Jabier Etxanizek eta Miren Urkiolak omenaldia jaso zuten, baita lehen zuzendari orokor Ramon Mendibilek ere.

**OSASUNA** > DEBAGOIENEKO OSPITALEA

# Ospitaleko oftalmologia kirurgiara teknologia berriena eraman dute

*Constellation* Faco-Vitreotomo aparatuak onura nabarmenak ekarriko dituela azpimarratu dute

Besteak beste, begi-operazioak doitasun handiaz egiteaz gain, kirurgiaren emaitzak hobetuko ditu

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Debagoieneko Ospitaleak merkatuko onenetakoa den azken generazioko *Constellation* Faco-Vitreotomo aparatua jarri du bere oftalmologia zerbitzuan, Ospitaleari dagozkion jardunbideetan teknologiarik berriena barneratzeko egindako apustuari jarraituz. Esandako aparatuaren bidez, begi-operazioak doitasun handiaz egitea ahalbideratuko dio pertsonal kirurgialariari.

**ONURAK**

Gaur egun erabiltzen diren gandu eta bitreoktomia (erretinako kirurgia) teknikei dagokienez hiru onura nabariak dakartza aparatu horrek. Batetik, gandu-kirurgiaren emaitzak hobetzen ditu, kirurgiak dirauen bitartean jariakortasuna errazten duenez, begiaren egonkortasuna areagotzen du-eta. Bestetik, ultrasoinuen erabilera gutxitzen du eta horrek operazio ondoko handitua gutxitzea dakar, egungo kirurgia teknikarekin alderatuta. Hirugarrenik, ebakuntza mikroebakidura bitartez egitea ahalbideratzen du eta, hortaz, ebakuntzak dirauen artean begia babestuago mantentzen da, baita operazio ondoko erosotasuna areagotu eta operazio ondoko astigmatismo-eragitea gutxitu ere.

Betsareari dagokionez, gaixoarendako operazio-ondo erosoagoa eskaintzen duen kirurgia egitea ahalbideratzen du, baita ikusmenaren berreskurapen azkarrago eta hobea ere. Exekuzioa bizkortzen duenez, eraginkortasun kirurgikoa ere hobetzen du.

**TEKNIKAK**

Ospitaleak oftalmologiari dagozkion kirurgia-teknika guztiak lantzen ditu gaur egun: ganduak, glaukoma, betsarea, betazalak eta orbita, eta negarbideak. Horren harira, Diana Iturraldek, Oftalmologia Zerbitzuko arduradunak, apustu sendoa egin du berrikuntzaren alde, baita teknikien hobekuntzan eta formazioan inbertsioak sustatzearen alde ere.



Anbulantzia, erorketa gertatu zen lekuan. GOIENKARIA

**EZBEHARRA** > ERORKETA

## Ume bat jausi da Elgetan sei metroko altueratik

Lekukoek erorketaren larritasuna azpimarratu zuten; Ertzaintzak ez zuen egoera adierazterik

**GOIENKARIA** > ELGETA

Gertakaria 20:30ak pasata izan zen Espaloiaren aurreko plazatxoan. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, 2 urteko neskatila "antza egoera txarrean zegoen hesia askatu" eta sei metroko altueratik erori zen. Plaza hori inguratzen dute hesiek, altueratik eta alboko errepidetik babesteko. Ertzaintzak ez zuen umearen egoerari buruzko xehetasunik eman edizio hau itxi zenerako (23:20). Barne Sailetik soilik konfirmatu zuten Gurutzetako Ospitalera eraman zutela anbulantzia medikalizatu baten. Edozelan ere, lekukoek erorketaren larritasuna azaldu ziguten.

**AZPIEGITURAK** > GARRAIO PUBLIKOA

## AP-1 autobidetik doan Gasteiz-Donostia autobus lineak 4.500 erabiltzaile izan ditu

Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatuak kopuru hori altua ez dela onartu badu ere, baikor agertu da horren harira

**M.B.** > BERGARA

Ekainaren 8an AP-1 autobidea osorik zabaldu zutenetik gaur arte, 4.500 erabiltzailetik gora izan ditu Gasteiz eta Donostia autobidetik lotzen dituen autobus lineak. Esandako datua Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatu Arantza Tapiak eman zuen joan den astean Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Horren balorazioa egiterakoan, onartu zuen kopuru hori ez dela altua. Kontuan hartu behar da, horren harira, egunero 34 autobusek egiten dutela linea hori. Horrekin batera, baina, diputatuak gaineratu zuen oraindik "goiz" dela zerbitzu horren funtzionamendua baloratzeko; izan ere, hiru aste pasatxo daramatzaeta bakarrik martxan eta zerbitzu horren erabiltzaileak izan daitezkeenak (unibertsitarioak, esaterako) oporretan daude.

Tapiak zerbitzu horren gaineko beste hainbat datu eskaini zituen. Donostia eta Arrasate arteko linearen erabilpena, joan zen urteko ekaineko datuekin alderatuta, %27 igo egin dela esan zuen. Aurtengo maiatzarekin alderatuta, zerbitzu hori martxan jarri barik zegoenean, igoera hori %6koa izan dela azaldu zuen.

Batzar Nagusietako taldeek ondo hartu zituzten diputatuaren datuak. Dena den, zerbitzu horretan, zenbait ordutan, unibertsitatean geldiunea izan beharko lukeela aipatu zuten. Tapiak eskaera aztertzeko konpromisoa hartu zuen, irailetik aurrera.

**TRAFIKO MOZKETAK**

Bestalde, jakina denez, egunotan AP-1 autobidean trafikoa mozten ari dira, tuneletan segurtasun neurriak egiten ari dira-eta. Gaur eta bihar artean, 22:00etatik 06:00etara, Isuskitzako tuneletan mozketa egongo da *bypass*-arekin Eibarko noranzkoan. Hurrengo gauean ere mozketa berdina egingo dute. Hilaren 8ko 22:00etatik 9ko 06:00etara, berriz, Lukuko tunelean, Gasteizko noranzkoan izango da mozketa *bypass*-arekin. Uztailaren 9 eta 10 artean, 22:00etatik 06:00etara, azkenik, Eskoriatza eta Luku arteko zatia itxiko dute.




Autobusetan 4.500 lagun inguru joan dira. GOIENKARIA

**AZPIEGITURA** > AHT

## Dagoeneko Mazmelako tunela zulatzen hasi dira

Espainiako Sustapen ministerioari dagokio 390 luzera izango duen tunela egitea

**M.B.** > ESKORIATZA

Abiadura Handiko Trena delaeta, Espainiako Sustapen ministerioak, Adifen bidez, joan den astean iragarri zuen Mazmelako tunela zulatzen hasi direla. Eskoriatza eta Aramaio arteko zatian sartuta dago hori.

Tunelak 390 metroko luzera izango du eta bide bikoitzekoa izango da. Irteera eta sarrera bakoitzean, 40 metro luze inguru edukiko duen beste tunela egitea aurreikusita dago. Zulaketa baliabide mekanikoen bidez egiten ari direla ere azaldu dute Espainiako Sustapen ministeriotik.

Ingurumenean lanek eragingo dituzten kalteen gaineko azalpenak ere eman dituzte. Horiek gutxitzeko asmoz, aipatu dute isuriak ateratzeko sistema instalatuko dutela tunel erdian eta isuriak biltegi hermetikora bideratuko direla.



Mazmelako tunela zulatzen hasi direla jakinarazi dute orain. J.A.

**ESKORIATZA** > EZBEHARRA

# Sustoa bai baina zauriturik ez Ederlanen, labe bat zulatzean

Egubakoitz goizean gertatu zen eta 1.500 eta 1.800 gradu artean dagoen salda irteten hasi zen; eztandak entzun ziren arren, ez zen inor zauritu




Suhiltzaileak, Ertzaintza eta anbulantzia bertaratu ziren. JULEN IRIONDO

**JULEN IRIONDO/I.B.** > ESKORIATZA

Egubakoitz goizean susto handia hartu zuten Eskoriatzako Fagor Ederlan lantegian. Galdategiko labeetako baten sortu zen arazoa; zulatu egin zen eta langileek zereginak alde batera utzi zituzten, labeko salda izurtzeak ekar dezaken arriskuarengatik. Bizpahiru eztanda entzun ziren, baina ez zen inor zauritu.

Labeko salda 1.500-1.800 gradutan egon ohi da; eta horren ondorioz, 150 langile inguru kalera atera zituzten berehala. Hala, jarraian bertaratu ziren Ertzaintza, hiru suhiltzaile kamioi eta anbulantzia bat, edozein ezbeharri aurre egiteko moduan. Azkenean ez zen halakorik gertatu. Arratsaldeko erreleboan ez zuten lanik egin, baina ez zen inolako zauriturik izan.

**POLITIKA** > PRESOEN ALDEKO PINTADAK

# EUDELek Barne Sailari eskatu dio kaleko pintadak ekiditeko

Presoen aldeko argazki eta pintadak kentzeko kanpaina pil-pilean

EUDELek Barne Sailak egindako adierazpen batzuk kritikatu ditu

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Azken asteotan Barne Sailak EAEko hainbat udaletara jo du 24 orduko epean presoen eta ETAren aldeko pintadak ezabatzeko; eta hala egiten ez badute, erantzukizun administratibo eta penalekin mehatxatu ditu.

Horren aurrean, EUDELek (Euskadiko Udalen Elkartea) bere ardura eta haserrea agertu du, eta elkarlanaren aldeko deia egin du. Hala, Barne Sailari eskatu dio, "herritar guztien segurtasunaren erantzulea den aldetik, udalerrietako kaleak hobeto zaindu ditzala, inork ez dezan pintadarik egin".

**IKA-MIKA PIZTU DA**

Horrez gain, EUDELek ez du egoki ikusi Jaurlaritzak pintadak garbitzeko lanak egitea eta horren kostua udalei ezartzea; eta hau gaineratu du: "Zentzu berean jokatzen badugu, udalok ere kaleen zainketa lanak indartu ditzakegu, eta ondorioz, horren kostua Barne Sailari ezarri diezaiokegu".

etxeko leihotik



**Inazio Arregi** > 'zuzen@goiena.com'

## KPIari buruzko informazio okerrak

Irakurleari galdetuko banio 2009ko KPIaren bilakaeraz, seguruenez, izugarri jaitsi dela esango luke, hilero ari gara-eta hedabideetan irakurtzen ez dakit zenbagarrenez jarraian, jaitsi egin dela urteko tasa.

Hedabideek, orokorrean diot, behin eta berriro azaldu digute prezioen kontsumoko indizeak behera egin duela 2009ko hilabete batean eta bestean, eta deflaziotik oso gertu gaudela. INEk emandako prentsa oharra argitaratu baino ez dute egiten hedabideek, analisirako tarte txikienik ere utzi gabe, gainera. Beraz, gure arteko bizitza mailak 2008ko abenduan baino merkeago beharko luke gaur, jasotzen dugun informazioaren arabera behintzat.

**"Kontsumo indizeak behera egin duela dioten arren, ez dugu ezer igarri"**

Irakurleak badaki, baina, plazara edo gasolindegira doanetan eskaintzen dizkioten salneurriak ez dutela beherantz egin. Are gehiago, eta datu errealei jaramon eginez gero, 2008an %1,9 egin dute gora EAEn eta 2009ko urtarriletik maiatzera %1,1 estatuan (EAEko datuak ez ditugu ezagutzen). Hau ikusita ez da harritzekoa izango 2009aren amaieran %2,5 edo %3ko tasa bat izatea.

Hori guztia ikusita, kontsumitzaileak askotan uste du prezioen beherakada amaigabearen aurrean hobe duela itxarotea edozer erosi aurretik. Argi ibili! Uste hori ez daeta erabateko egia.

**> Erretiroa**

**Aste honetan, Estatuko kutxen fundazioak (Funcas) erretiroko adina 70 urtera arte luzatu beharra dagoela esan digu. Ez dira bada orain arte banketxe eta kutxak eredu azpimarragarriak izan gai horretan!**

**> Erantzuleak**

**Eredugarria omen Madoff 'jaunari' jarritako zigorra. Bera bakarrik izan behar zen zigortua? Ala berarekin batera, gobernua, erregulatzailea, eta horrelako iruzurrak egiteko bidea eskaintzen duen sistema?**

### Arrakastatsua izan da Bedelkarrek abiarazitako beherapen ekimena

Egubakoitzean eta zapatuan, Bedelkarrek antolatuta, *Azoka txikia kalean* ekimena egin zuten Bergarako 26 saltokik. Hala, udazkenean egin zuten moduan salgai dituzten hainbat produktu kalera atera zituzten, eta horiei beherapen handiak ezarri zizkieten. Udazkenean euria egin zuen arren, oraingoan eguraldi ona izan dute (ez euririk, ez berorik) eta jende ugari hurbildu zen begiratzera eta erostera. Mujika jostundegiko eta Mirari arropa dendako arduradunak, esaterako, oso pozik zeuden.



IKER BARANDIARAN

> SABOTAJEA

### AHTean lan egiten dutenen enpresen kontrako oharra

Ezezagun bat GOIENAko hedabideekin harremanetan jarri da asteburuan, jakinarazteko ekainaren 17an Arrasaten AHTren lanetako auto bati Zarugalde kalean eraso egin ziotela.

Ezezagunak honako hau jakinarazi du: "AHTren eraikuntza lanetan dabilen enpresa baten autoaren aurka egin genuen ekintza, eta ez langilearen autoaren kontra, Barne Sailak eta komunikabideek esan bezala. Petardoak eztanda egin zuen arren, erregaiak ez zoritxarrez. Enpresa txikitzaileen aurkako erasoek jarraituko dute".

**ENPLEGUA** > BILAKETA

# Langabezia jaitsi egin da: %10,82koa da



Zerbitzuetan jaitsi da, batez ere,langabe kopurua. JOSETXO ARANTZABAL

Hirugarren hilez jarraian jaitsi da langabezia ibarrean; kontuan hartu behar da uda hasieran kontratu gehiago egiten direla normalean

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Hirugarren hilabetez jarraian, gutxigatik baina behera egin du ekainean langabeziak Debagoienean: denera 3.352 langabe zeuden Inem-en izena emanda bailaran, aurreko hilabetean baino sei gutxiago. Langabezia tasa %10,82koa da, urteko bigarren datu onena; tasa baxuena urtarrilekoa izan zen (%10,03).

Hala ere, bi herritan bakarrik egin du behera langabeziak: Arrasaten eta Oñatin.

**HEGO EUSKAL HERRIAN**

Hego Euskal Herriko lau lurraldetan egin du behera langabeziak bigarren hilabetez jarraian. Hala, ekainean 2.897 pertsona gutxiago zeuden lanik gabe Hego Euskal Herrian, eta horrek langabezia tasa %11ren bueltan utzi du.

Udan kontratu berri asko sortzen dira, batez ere, zerbitzuetan, eta sektore horretan jaitsi da gehien langabeen kopurua: maiatzetik ekainera, 1.933 langabe gutxiago, hain zuzen. Ondoen jokatu duen bigarren sektorea industria izan da, eta 692 langabe gutxiago izan dira sektore horretan.

## Langabe kopurua eta langabezia tasa, Debagoienean

| | URTARRILA | OTSAILA | MARTXOA | APIRILA | MAIATZA | EKAINA | MAI.-EKA. ALDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | 87 (9,56) | 94 (10,33) | 97 (10,66) | 86 (9,45) | 84 (9,23) | 89 (9,78) | +5 |
| ARETXABALETA | 342 (10,6) | 363 (11,25) | 368 (11,4) | 368 (11,4) | 358 (11,09) | 367 (11,37) | +9 |
| ARRASATE | 1.325 (11,45) | 1.442 (12,46) | 1.500 (12,96) | 1.465 (12,66) | 1.423 (12,3) | 1.397 (12,07) | -26 |
| BERGARA | 633 (8,82) | 711 (9,91) | 707 (9,85) | 715 (9,97) | 697 (9,71) | 723 (10,08) | +26 |
| ELGETA | 38 (7,72) | 46 (9,35) | 47 (9,55) | 44 (8,94) | 38 (7,72) | 40 (8,13) | +2 |
| ESKORIATZA | 258 (12,41) | 266 (12,79) | 267 (12,84) | 274 (13,18) | 265 (12,75) | 275 (13,23) | +10 |
| LEINTZ GATZAGA | 13 (9,77) | 11 (8,27) | 14 (10,53) | 11 (8,27) | 11 (8,27) | 12 (9,02) | +1 |
| OÑATI | 412 (7,62) | 440 (8,14) | 469 (8,68) | 480 (8,88) | 482 (8,92) | 449 (8,31) | -33 |
| **DENERA** | **3.108 (10,03)** | **3.373 (10,88)** | **3.469 (11,19)** | **3.443 (11,11)** | **3.358 (10,84)** | **3.352 (10,82)** | **-6** |

ITURRIA: INEM

Debagoiendar batek Boli Kostatik erosle baten deia jaso zuen, lehenbailehen etxea erosi nahi ziola esanez

Ustezko erosle horrek diru-transferentzia egiteko 5.000 euroko tasa eskatzen zion; ez dago halako tasarik

**ETXEBIZITZA** > IRUZURRA

# Etxebizitza Internet bidez salgai dutenei iruzur egin nahi izan dietela salatu dute

**L.K.** > BERGARA

Etxebizitza merkatuan iruzur batez ohartarazi du Arrasateko Jesus Markaide etxe-agenteak, dirudienez Debagoienera ere iritsi dena. Etxebizitza Internet bidez salgai duenari gerta dakioke.

Interneten salmenta iragarkia jarrita zuen pertsona batek posta elektroniko mezu bat jaso zuen joan den egubakoitzean, Boli Kostatik. Dirudienez, frantses batek idatzitakoa zen eta etxebizitzaren gaineko informazioa eskatzen zion. Astelehenean, 65.000 euro aurreratzea eta beste hainbeste uztailean ordaintzea proposatzen zion, horrela etxebizitza erosteko. "Ez dut inoiz ezagutu etxebizitza Interneten argazki bat ikusita bakarrik erosteko gertu dagoen inor, baina krisi garai hauetan, horrelako erosle bat topatzeak edozein pozten du", dio Markaidek.

Saltzaileak telefonoz deitu zion erosleari, eta hark esan zion transferentzia egiteko 4.990 euroko tasa bat aurreratu behar zuela lehenengo etxearen jabeak. Banketxe baten galdetuta, baina, esan zioten halako tasarik ez zegoela.

"Boli Kostako enbaxadak baieztatu digu horrelako ekintzen gaineko dei asko jasotzen dabiltzala, eta iruzur saiakerak direla. Ez zaie inongo jaramonik egin behar ez eta informaziorik eman", gomendatzen du Markaidek.

## MUko Oñatiko fakultateko graduondokoei, diploma banaketa

Mondragon Unibertsitateak diplomak banatu zizkien, joan den egubakoitzean, Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultatean graduondoko hainbat ikastaro bukatu dituzten 53 ikasleei. Ekitaldia Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko areto nagusian egin zuten, eta Mondragon Unibertsitateko errektore Josu Zabalak, Enpresa Zientzien Fakultateko dekano Lander Belokik eta Juan Luis Urkiola giza baliabideetako aholkulariak gidatu zuten ekitaldia. Azken horrek motibazioaren gaineko hitzaldia egin zuen.



JOSETXO ARANTZABAL

> ENPRESAK

## Natra Taldea negoziolerroka antolatzea onartu dute

Natra elikadura arloko enpresako administrazio kontseiluak joan den astean onartu zuen taldea negozio-lerroka berregituratzea. Horrenbestez, kakao eta txokolatearekin lotutako sozietateen akzioak *subholding* baten batuko dira eta beste sektore batzuetan dituzten inbertsioak beste *subholding* baten.

Horrez gain, 2008ko jarduerako kontuak onartu zituzten, eta Natraren kakao eta txokolate dibisioa Barry Callebaut enpresarenarekin bat egiteaz ere informatu zuten.

auzorik auzo

**LIZARRAGA**> Antzuolako auzoa da Lizarraga. Uzarraga, Galartza eta Irimoegigoena auzoekin egiten du muga. Gaur egun 30 baserri inguru daude auzoan; biztanleak, ostera, 61 inguru dira. Sanmartzialak ospatu berri dituzte.



San Martzial ermitaren aurrealdeko zelaian, Juan Migel Pagaldai auzo-alkatea. A.EZKIBEL

**Juan Migel Pagaldai** > Lizarragako auzo-alkatea

# "Garai batean baserriak uzteko tendentzia egon zen; orain, berriro bete egin dira"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

**Juan Migel Pagaldai bergararra da jaiotzez, baina Lizarragan bizi da aspaldiko urteetan. Gainera, azken bi urteetan auzo-alkate lanetan dabil. Auzo lasaia dela dio, eta duten arazo nagusia errepideak txukun mantentzea dela dio.**

**Zein da auzoaren gaur egungo egoera?**

Biztanleriak gora egin du pixka bat, baserri batzuetara bikote gazteak etorri dira-eta. Etxe guztietan ez da bizi jendea, baina baserri guztiak txukunduta daude.

Lehen, utzi egin ziren etxeak, garai batean tendentzia hori egon zen, baina orain berriro etorri dira. Gazteak ilusioarekin etorri dira, eta etxeak mantendu eta txukundu egiten dituzte.

**Lizarraga auzoak duen arazo nagusia zein da?**

Auzoko arazo nagusia errepidearen egoera dela esan daiteke. Orain dela urte asko egin ziren bideak eta poliki-poliki hondatzen dabiltza. Auzo lanean egindako errepideak dira; zati batzuk ondo daude, baina beste batzuk ez hain ondo.

Bestalde, orain alde batera utzita dagoen arren, lehen egon zen ura ipintzeko plan bat. Gaur egun baserri bakoitzak bere putzutik hartzen du ura. Orain urte batzuk Europatik zetorren diru bat aprobetxatuta ura jartzeko asmoa egon zen. Baina finantzazio guztia lortzeko arazoak zeuden; baserritarrei ere dirua eskatu ziguten. Azkenean, krisia dela medio, alde batera utzita dagoen gaia da.

Horrekin batera, putzu septikoak egiteko plana zegoen. Putzu horiek nola egin aztertzen egon ziren. Etxe batzutan badaude putzuak, baina gertatu dena da putzu horiek garbitzea asko kostatzen dela eta ez dagoela dirurik. Orain plana alde batera lagata dago.

**Zaborra uztera behera joan behar izaten duzue. Zabor ontzia gorago jartzea eskatu duzue?**

Barren-barrenean daukagu basura uzteko tokia. Gurako genukeena da gorago jartzea basurak uzteko lekua. Mankomunitatearen ardura da hori. Bestalde, birziklapena egiteko zaborra aurrerago utzi behar izaten dugu.

**"Arazo nagusia errepidearen egoera da; orain dela urte asko egin zenez, hondatuta dago"**

**"Auzoko ohitura da San Martzial egunean pitxer berezia ateratzea eta ardoa banatzea"**

**Azkeneko baserritik Gorla aldera irteera egitea ere eskatu duzue.**

Azkeneko baserritik gora, Gorla aldera irteera bat egitea ondo egongo litzateke. Guk gurako genuke zepa botatzea brea bota beharrean, baina dirudienez debekatuta dagoen produktua da. Lotura hori egitea garrantzitsua izango litzateke, baina krisi garai honetan horrelako gaiak planteatzea astakeria da.

**San Martzial jaiak ospatu berri dituzue. Zer da San Martzial pitxarraren kontua?**

Auzoko ohitura da San Martzial egunean pitxer berezia ateratzea. Bertan ardoa bedeinkatzen dugu eta bertara etorritakoei banatzen diegu ardoa. Urtero auzotar bati egokitzen zaio pitxarra etxean gordetzea.

**Auzoan zehar, zortzi kilometroko ibilbidea egin daiteke, erroten bidea ikusiz.**

Bai, jendea ibiltzen da auzoan zehar pasioan, leku polita da-eta. Ibilbidean zehar ikus daitezkeen errotak dira Larrebarrengoa, Laskurain eta Akinibai. Garai batean Akinibaiko errotan argi indarra egiten zen auzoko baserrietarako.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Uztaileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

MUNDUMIRA KAMISETA
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.

ATXAGAREN LIBURUA
PAMIELA
BIDALI AG ATXAGA 5533 zkra.

UMEENTZAKO LIBURUAK
PAMIELA
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra

RIP TALDEAREN DVD-A
Goiena
BIDALI AG RIP 5533 zkra

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14
S. Josepe, 10 943 77 01 33
Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Alberto Bodero (Valladolid) *Nola egin negozioak Txinan* izeneko jardunaldietan izango da eguenean Arrasaten. Abokatua da Bodero, eta merkataritza zuzenbidean aditua. Orain dela zazpi urte joan zen lehenengoz Txinara, eta esperientzia txarra izan zuen. Hori dela-eta, han bizi eta ikasitakoak azalduko dizkie Txinan negozioa egin gura duten enpresaburuei.

**Alberto Bodero** > Abokatua eta Txinan negozioak egiten aditua

# "Akatsa da uste izatea Txinan hemen bezala egiten direla negozioak"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Gipuzkoako Txinatarren Institutuaren laguntzarekin antolatu du Mankomunitateak eguneko jardunaldia. Alberto Bodero izango da jardunaldietan, eta batez ere hark Txinan bizi izandako esperientzia azalduko duela esan du.**

**Batez ere, zure esperientzia azalduko duzu eguneko ikastaroan?**

Bai, nire esperientzia azalduko dut. Batez ere, gure ustez Txinan negozioak zela egin behar diren azalduko dut. Hainbat urte dira Txinara lehenengo aldiz joan ginena, eta han egin izan duguna azalduko dut: nola egin genuen porrot eta aurrera nola egin dugun.

**Txinan negozioak egiten aditua zarela esan daiteke. Nola egin zera aditu?**

Nik azaldu ahal dudana nire esperientzia da, hortik aditu izatera alde handia dago. Lan kontuengatik Txinara azkeneko zazpi urteetan joan izan naiz, horregatik dakit hango berri. Ni abokatua naiz, eta merkataritza zuzenbidean aditua.

**Zure ustez, jendea preparatu barik joaten da Txinara?**

Bai, batez ere jendeak ez du errealitatea ezagutzen. Bi ideia faltsu hauek izatea ohikoa izaten da: uste izaten dugu Txina merkatu uniformea dela, eta hori ez da horrela. Txina zatituta dagoen merkatua da; hiru gune dituela esan daiteke. Hortaz, hirigune bakar batean jarri behar duzu arreta. Kontuan hartu Shangai bezalako hiri batean 30 milioi biztanle daudela. Gainera, pentsatzea Shanghain egin daitekeen negozioa edo Pekinen egin daitekeen negozioa berdina dela akats handia da.

Beste ideia faltsua da uste izatea Txinan munduko beste edozein tokitan bezala egin daitezkeela negozioak. Txinako kultura oso ezberdina da; hortaz, negoziazioan akats bat izanez gero, negozioa zapuztu egin daiteke. Berba egiteko modua, jateko modua... Gainera, txinatarrak oso harroak dira eta uste dute gure kultura eurena baino gutxiago dela. Euren bezeroak garelako onartzen gaituzte!

**Zure ustez, Txina esportaziorako herrialdea bakarrik da?**

Hori beste akats bat da. Jendeak uste du Txina esportaziorako herrialdea dela. Baina oso herrialde zaila da esportatzeko; samurragoa da erostea edo han ekoiztea.

**Portaera jarraibide batzuk jakitea komeni da Txinara joan aurretik. Zeintzuk dira jarraibide horiek?**

Bai, bai... hori ezinbestekoa da. Esaten da komenigarria dela bazkide txinatar bat izatea, baina hori ez da egia. Gure esperientziaren arabera, bazkide txinatar bat izatea ez da komenigarria. Guk moldeak egiten dituen enpresa bat sortu genuen sozio txinatar batekin. Sozioak Kanadan ikasi zuen, ingeniaria zen... hasiera batean sozio perfektua. Ba, diru guztia galdu genuen, 300.000 dolar inguru. Galdu genuen ez genuelako negoziatzen jakin; uste genuen hemen geundela, eta ez geunden hemen. Hortaz, orain beste azpiegitura bat daukagu; espainiar bat dago han lanean.

**Txinatarrekin lan egiteko beharrezkoa da Txinan egotea?**

Ez, uste hori ere faltsua da. Lan egiteko ez daukazu zertan Txinan egon.

Ondo preparatuta egotea beharrezkoa da, baina baita esan behar da ondo preparatuta dagoen edozein enpresarik egin dezakeela lan ondo. Adibidez, kalitate kontrolak pasatzea oso garrantzitsua da. Hortaz, ondo preparatutako pertsona bat hara joan eta han zela lan egiten den ikusiz gero, negozioak ondo egin ditzake.

**Txina merkatu oso indartsua dela diote; zure ustez, hori horrela da?**

Bai, gaur egun Txina da merkatua. Gehiago esango nuke, orain Txinara doana, berandu ez, baina ez doa denboraz. Gaur egun Txinan ez dagoena ez dago inon. Hurrengo merkatuak izango dira India, Vietnam, Laos, Kanbodia... Nik beti esaten diot jendeari astebete oporretara joateko Txinara, Shanghaira adibidez, eta ikus dezala zer den. Shanghaik New Yorkek baino 300 etxe-orratz gehiago dauzka, atera kontuak... Txinara lehenengo aldiz joan nintzenean uste nuen taxi gidariak gurdiei tiraka ikusiko nituela. Eta guztiz alderantzizkoa izan zen; munduko tren bizkorrenak dituzte...

**Txinara joan izan zaren urte hauetan, asko igo da Txinako bizi kalitatea? Alde handia dago Txinako hirien eta nekazaritzaguneen artean?**

Txinan egon zaitezke XXI. mendeko hiri batean, eta 200 kilometro mugituta Erdi Arora pasa zaitezke. Herrialde komunista da Txina, baina gune batzuk merkataritza askekoak dira. Eta, horietan, kapitalismoa oso modu indartsuan ezarri da. Esango nuke munduko beste edozein tokitan ezarri ez den moduan.

Mendebaleko hainbat akats hartu dituzte; horietako bat da kontsumismoa.

**Gipuzkoako Txinatar Institutuarekin kolaboratzen duzu. Zer egiten duzue?**

Nik konferentziak ematen ditut; gustu handiz, gainera. Ezberdina da ikasleei edo enpresa gizon-emakumeei ematea ikastaroa. Gainera, ohikoa ez izan arren, nik porrota kontatzen dut, ez zer ondo joan zaidan.



Eguenean Arrasateko Mankomunitateko egoitzan izango da Alberto Bodero. GOIENKARIA

MERKATUA

**"Txinako merkatua uniformea dela pentsatzea uste faltsua da, oso zatituta dago"**

JARDUNALDIAK

**"Ohikoa ez izan arren, nik izan nuen porrota kontatzen dut, ez ze ondo joan zaidan dena"**

KAPITALISMOA

**"Kapitalismoa oso modu indartsuan ezarri da Txinan, beste edozein tokitan ez bezala"**


Kutxa Inbertsio-Irtenbideak
Ez duzulako galtzea jasaten.
EUROLIDER
GORDAILU BERRIA
IRABAZTEKO ASKO, GALTZEKO DEUS EZ.
%100
BERMATUTA
Errentagarritasun handiko aukerak eta zure kapitalaren %100 bermatuta dituen gordailua. Etorri kutxara eta galde iezaguzu.
Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 090203 espediente zk-duna.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## kale inkesta

# Tabakoaren salneurria igo dute. Eragin dizu prezioek gora egiteak?



**Carlos Maestre**
Langilea
Bergara

Niretzat sekulako faena da, baina erretzaileok berdin-berdin jarraitzen dugu erretzen, zaila da uztea. Prezioaz kexatzen gara, baina Frantzian, esaterako, hemengo bikoitza da tabakoaren prezioa.



**Juan Carlos Gomez**
Langilea
Bergara

Ni erretzailea naiz eta poltsikoak igarri du bai; hortaz, gaizki iruditzen zait. Hala ere, berdin jarraitzen dut erretzen. Salneurria bikoiztuz gero, baliteke jende gehiagok erretzeari uztea.



**Naiara Lazpiur**
Langilea
Arrasate

Nik asko igarri dut igoera. Lehen Chesterfield erretzen nuen eta Winston erretzera pasa naiz merkeagoa delako. Egunean pakete bat erretzen dut eta gutxiago erretzea pentsatu arren ezin dut utzi.



**Oscar Valle**
Ikaslea
Bergara

Ez naiz erretzailea, baina ondo iruditzen zait prezioa igotzea. Ingurukoengan izan du eragina igoerak eta batzuek bildutako zigarroak erretzera pasa dira. Hala ere, ez dut uste erretzeari utziko diotenik.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> Kulturate eguerditan itxita**

Herritar bat kexu da Arrasateko kultura etxea eguerditan itxita egoten delako eta jendea ezin izaten delako hara joan. Orain, gainera, azterketen garaia igaro dela-eta, ikasleek eguerdiko ordu horien beharra dutela deritzo gazte horrek eta Udalari ahalegin bat egiteko eskatzen dio Kulturatek, azterketa garaian behintzat, eguerdi oro irekita iraun dezan.

BERGARA

**> Espaloi barik Barrenkaleko eskumako aldean**

Herritar batek deitu egin digu esanez, Barrenkalen eskuma aldeko espaloi zatia falta dela. Badirudi Bergaran, soilik espaloiak ezker aldean existitzen direla eta horren ondorioz, herritarrek eta edonork ezkerreko aldetik soilik edo errepidetik igaro behar dutela kalean dabiltzanean. Herritar horrek oso arriskutsua dela dio, autoak pasatzen dira-eta momentuoro bertatik.

OÑATI

**> Euskadi etorbidean ispilu falta**

Oñatiko gazte batek esan digu Euskadi etorbideko autobus geralekuaren ondoko bidegurutzean ispilu baten beharra dagoela. Autoak ia muturreraino aparkaturik egoten dira eta ez da ezer ikusten. Edozein istripu egoteko arriskua dago eta ispilu batek saihestu ditzake horrelako arazoak.

## usteak uste

**Irati Agirreazaldegi**

# Beherapenak penagarri

Iritsi dira beherapenak, baina beheratuko ote dituzte gure penak? Horren esperoan, dendetako beroan, ibili ohi dira giro eroan arropak ukitu, probatu, erosi... denak.

Merkea eta polita. Hori omen da beherapenen politika. Dendarien nahia ahalik eta gehien saltzea baita.

Modan omen dago berdea eta %60 merkeago egonik, alkandora hori behar ez dudan arren, dendan nola utzi, ordea.

Bi laguni praka berdinak gustatu eta denda erdian hasi dira borrokan. Penak beheratzen ordez, penagarri portatzen baita asko holakotan. Hala ere, nik behintzat ez dut horrelako jarrera negargarririk ikusi Bergarako merkealdien azokan.

Beherapenak erosteko beharra ala kontsumismoaren hatzaparra?

## zorroztailea



**Larraitz Ugarte**

# Aurpegiak

"Bilboko Errondabideko murala eta presoen argazkiak berriro kendu ditu Ertzaintzak. Are gehiago, modu oso txarrez herriko tabernan zeuden hamalau bezeroak atera eta identifikatu egin zituen. Ertzaintzak alde egin ostean, presoen argazkiak berriro jarri zituzten".

Gara > 2009-07-04



El Consistorio de Azpeitia acuerda realizar un gran mural por los presos

LAB pide respuestas sobre el paradero de Jon Anza ante la sede del PSN en Iruñea



Arrasate, Antzuola, Lekeitio, Bilbo…Euskal Herriko kaleetatik errealitatea ezabatzearen gurutzada dago martxan. Michael Jackson ez, hori ez digute kenduko. Urte osoa egon beharko dugu bere aurpegi deskafeinatua edonon ikusten. Aurpegi horrek ez du minik egiten, nahiz eta pederastiaren itzala eduki eta arrazakeriaren esponente izan. Badira, ordea, mina edo deserosotasuna eragiten duten aurpegiak. 700 aurpegitik gora dira, gainera. Terrorismoaren samina islatzen dutela diote batzuek; anaia, bikotea, lagunaren goxotasuna besteek. Batzuei errespetua eragiten diete; beste batzuei,berriz, errespetu falta iruditzen zaie. Garaiotako turistentzat, aitzitik, kuriositate iturri dira.

Niretzat beste ezeren gainetik gatazka politiko baten erakusle dira eta hedabideetatik jasotzen duten egurraren gainetik, aurpegiak, han, edozein kale, taberna edo paretetan zintzilikatuta begiratuta, pertsonak dirudite. Gizonak eta emakumeak, gazteak eta zaharxeagoak… Begira zaudela euren bizitzak imajinatzen jar zaitezke eta "normalak dirudite, nolatan amaitu dute kartzelan?" galdetzen amaitzen duzu eta orduan norbait gerturatzen zaizu eta argazkiko bat ezagutzen duela esaten dizu eta oso tipo majoa dela… Eta klaro, orduan pentsatzen hasten zara, "jo ba normala dirudi, honek majoa dela esan dit eta kartzelan badago, zer ari da hemen gertatzen?". Eta orduan asuntoa ez dela hain sinplea ohartu zaitezke, onak agian ez direla hain onak eta txarrak hain txarrak; eta agian, horren atzean dagoen arazoa arazo politikoa dela pentsatzera iritsi zaitezke eta orduan asuntua ez dela gartzelarekin konponduko, elkarrizketa politikoarekin baizik ondorioztatu dezakezu… Eta guzti hori pentsatzea norbaiti ez zaio interesatzen eta orduan, zas!, aurpegiak kaletik kenduta txarrek beti txar emango dutela uste izango dute zenbatzuk.

**"norbaiti ez zaio interesatzen herritarrek pentsatzea"**

**"Michael Jacksonen aurpegia urte osoan ikusiko dugu"**

Baina ez al dira ohartzen gurutzada antzua dela, Lola Floresek zioen lez: "Olioa uretan bezala, errealitatea beti azaleratzen delako"?

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Irati Agirreazaldegi, Julen Iriondo, Jon Berezibar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
134 lagunek eman dute izena, oraingoz, Garagartzeko ortuen zozketarako **> 14**



**> OÑATI**
Uztailean eta abuztuan irteera bereziak egingo dituzte Arrikrutz eta inguruak ikusteko **> 18**



**> ARAMAIO**
Urtea amaitu baino lehen hasiko dira eguneko zentroa eraikitzen, Aldundiak lagunduta **> 20**



Lord Witch, Fly Shit eta beste musika talde batzuetako partaideak joan den eguaztenean, Goiko Estazioko lokal berrituan. E.M.

# Goikorock: Bergarako musika taldeen topaleku berritua

Goiko Estazioko eraikina berritu egin du Bergarako Udalak eta 22 musika taldek dihardute bertan

Goikorock musika elkarteak beste edozein elkarte moduko funtzionamendua dauka

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Eguaztena, uztailak 1. Santa Marinako parrokian arratsaldeko zazpi t´erdiak jotzeko minutu gutxi batzuk falta dira eta Masterrekatik Goiko Estaziora eramaten duen aldapa igo ahala gitarra doinuak entzun daitezke. Zarata nabarmenagoa da garai batean tren geltokiko eraikina zenera hurbilduz gero. Hainbat musika taldek entseguetan dihardute, *jo eta fuego*. Kanpoan sargoria bada, lokal barruan zer esanik ez. Han dabilen mutil batek esaten digu 32 ºC dituztela entsegu lokaletan. Goiko Estazioko eraikina berritu egin du Bergarako Udalak eta 22 musika taldek dihardute han maiatzaren hasieratik.

**ZORTZI LOKAL**
Berrikuntza lanen ondorioz, musika taldeendako zortzi lokal daude, bi pisutan banatuta. Lokal txikiak dira, 12-18 m2 bitartekoak. Baina musikariek ez dute arazorik espazioarekin; bai, ordea, aireztapenarekin. Leiho bakarrak beheko solairuan daude eta zaila da airea berritzea. Izerditan blai eginda daude musikari gazteak. Hamar bat lagun elkartu dira eguaztenekо ordu honetan. Lord Witch taldekoek zapatuan gaztetxean ematekoa zuten kontzertua gertatzen ziharduten. Haiek Olympic Dards eta Sententzia taldeekin konpartitzen dute lokala. Talde bakoitzarendako izendatuta daude erabilgarri diren zortzi lokalak.

Eugenio Pelicano dugu Lord Witcheko gitarra jotzailea. Berak esaten digunez, elkarte gastronomiko baten antzeko funtzionamendua daukate Goiko Estazioko lokalean. "Hileko talde bakoitzak 30 euroko kuota ordaintzen du eta beste 10 euro bazkide egiterakoan. Dena dela, talde bakoitzean partaide kopuru ezberdina dagoenez, hileko kuotarena modu zuzenagoan egin nahi dugu aurrerantzean. Udalak erantzukizun zibileko asegurua egitera behartu gaitu eta horrez gain ur eta argi gastuak geuk ordaintzen ditugu. Era berean, lokalaren garbiketaz pertsona bat arduratzen da. Talde bakoitzak ditu lokaleko giltzak eta lokala astelehenetik domekara dago erabilgarri, 10:00etatik 22:00etara. Lokal bakoitzean hiru bat talde daudenez, beraien esku dago ordutegia antolatzea". Era berean, Bergarako Udalak, lokala uztearren, trukean zera eskatzen diete: urtean zehar hainbat ekitalditan (jaietako kontzertuak esaterako) parte hartzea.

Goikorock izeneko musika elkartea eratu dute eta bertan parte hartzeko interesa dutenek beraiengana jotzea baino ez dute: *goikorock@yahoo.es*.



Lord Witch taldekoak euren lokalean entseatzen. E.M.

## Goiko Estazioko lokalaren inaugurazioa egingo dute egubakoitzean, arratsaldean

Goiko Estazioko berrikuntza lanen inaugurazioa egubakoitzean, hilaren 10ean, izango da, 18:00etan. Agurne Barruso alkatea eta Udaleko ordezkariak izango dira. Lokalean diharduten taldeetako batzuk hainbat kantu eskainiko dituzte eta jarraian luntxa izango da. Berrikuntza lanean aurrekontua 281.396 eurokoa izan da, eta Diputazioak 55.600 euroko laguntza eman du. Berrikuntza lanek iraun duten bitartean Jam aretoan jardun dute hamar taldek; hilero 50 euro ordaintzen ditu talde bakoitzak; eta, Udalak, hilero, 3.000 euroko ordaindu behar izan ditu.
Esan bezala, Goiko Estazioan zortzi lokal dira eta bi komun egokitu dituzte, bata beheko solairuan eta bestea goikoan. Beheko solairua elbarrituek erabiltzeko moduan gertatuta dago, oztoporik gabe. Hori bai, uda partean bereziki, sauna eta rocka uztartuko dituzte Goiko Estazioan.

**ARAMAIO** > SAN MARTIN JAIAK

# Koadrilek hartuko dute gaur jaien lekukoa eta giroari eusteko ardura

## Besteak beste, zapatuko tortilla lehiaketan eta Txirritolinpiadetan herritar ugari batu zen

JON BEREZIBAR > ARAMAIO

Astelehena da baina aramaioarrek geldi egoteko asmorik ez daukate koadrilen arteko pikearekin akabatu beharko dute gaur ajea (16:30), Txan Magoa bixamonie desagertarazteko trikimailuren batekin ez baldin badator gutxienez.

Txarangarekin iratzarri eta eltze arteko dohainak tortilla lehiaketan erakutsi behar izan zituzten aramaioarrek zapatuan. Patatek emandako indarrak Txirritolinpiadetan erre behar izan zituzten arratsaldean. 3 laguneko 12 taldek hartu zuten parte, eta horiek bizikletan, arineketan eta ur baldekada txirristan behera garraiatzen zebiltzan bitartean plan lasaiagoa gurago zutenak mahaiaren bueltan elkartu ziren karta-jokoan. Pantxoa eta Peio arduratu ziren gauean herriko bazterrak goxatzeaz.

**HERRI KIROLA ETA DANTZA**

Atzo, herri kirolarekin zen hitzordua, eta dantzariekin. Gaua, ostera, umorez egin zuten aramaioarrek elizako eskaileretan egindako bakarrizketekin.



Pantxoa eta Peio kontzertua. JOSETXO ARANTZABAL


Herri kirolak. J.A.


Orain dela 30 urteko sokatira taldea. JULEN IRIONDO

### Egitaraua, Astelehena, 6

**11:30** Ume jolasak.
**13:00** Txan magoa, plazan.
**16:30** Koadrilen arteko pikie (COBRA team, SWAT eta Aramaioko udaltzainen Akademia Ofiziala arduratuko die segurtasunaz, animuek beroketan hasten badie).
**19:00** Arrasate musikalen kontzertue kultura etxien.
**21:30** Herri afarixe. Afalostien: zaparrada Batukada Taldie.ikuskizuna Udal Pilotalekuan.
**01:00** DJ Txosnetan.
**19:00** Ogeazoietz? kepringau! plataforman ekitaldi politikue.

BIDEGI
GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA
AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**AP-1 AUTOBIDEA ITXIKO DUTE GAUEZ ESKORIATZA ETA LUKO ARTEAN**

***Autobidea itxita dagoen bitartean segurtasun taldeek ariketa praktikoak egin ahal izango dituzte autobideko tuneletan.***

Segurtasun taldeek AP-1ko tuneletan egingo dituzten ariketa praktikoak eta prestakuntza direla eta, aste honetan zehar autobidea itxi egingo da gauez Eskoriatza eta Luko artean.

* Uztailaren 6tik (astelehena, 22:00etan) uztailaren 7ra (asteartea, 06:00etan):
Isuskitzako tunela itxiko da (Eibarrera doan galtzada). Desbideratzea “by-pass” bitartez egingo da.

* Uztailaren 7tik (asteartea, 22:00etan) uztailaren 8ra (asteazkena, 06:00etan):
Zarimuzko tunela itxiko da (Eibarrera doan galtzada). Desbideratzea “by-pass” bitartez egingo da.

* Uztailaren 8tik (asteazkena, 22:00etan) uztailaren 9ra (osteguna, 06:00etan):
Lukoko tunela itxiko da (Gasteizera doan galtzada). Desbideratzea “by-pass” bitartez egingo da.

* Uztailaren 9tik (osteguna, 22:00etan) uztailaren 10ra (ostirala, 06:00etan):
Eskoriatza eta Luko arteko zatia itxiko da (bi galtzadetan). Ordezko bidea: GI-627

**Informazio gehiago izateko, web orri honetan kontsultatu:**

**www.bidegi.net**


Uda betean, pinguinoek hartu zuten Elgetako plaza, mozorrotuta jaiei hasiera emateko. LARRAITZ ZEBERIO


Paella erraldoietik jan zuten hainbat elgetarrek, parrandan jarraitzeko gero. J.A.

**ELGETA** > FERIXA NAGUSIKO JAIAK

# Domekako ezbeharrak tristetu zituen jai parte-hartzaileak

## Atzo gauean ume batek izandako istripu larriak jota utzi zituen elgetarrak jaien bukaeran

**IRATI AGIRREAZALDEGI/I.B.** > ELGETA
Elgetako jaiek eman dute berea eta ondo igaro dituzte, gainera, topera.

Eguenetik gogor hasi ziren; mozorrotuta. Hala, herriko plaza izoztu egin zuten *Ice Age*-ren antzera; beste batzuek Errozioa ospatu zuten, eta Elgetara Athle- ticen gabarra ere igo zuten batzuek.

**BITS FESTAK, ARRAKASTA**
Egubakoitza umeen eta erretiratuen eguna izan zen. Hala, erretiratuek gehien gozatu zutena bazkaria izan zen; eta umeek, berriz, Bits festa; azken hori, bai, errepikatu beharko dutela.

Zapatuko Herri Eguna oso arrakastatsua izan zen: asto karreran lau partaide eta Mikel Beretxinaga irabazle; herri bazkarian 520 plater paella banatu zituzten. Antolatzaileek herritarren esku-hartzea eta giroa nabarmendu zituzten; jendearen jaigiroa. Hainbeste, azokara etorritako jende mordoak eta gaupasa egindakoek bat egin zutela.

**EZBEHAR LARRIA**
Domeka iluntzean ume batek izandako istripu larriaren aurrean, Udalak bere atsekabea agertu zuen.


Asto karrerak ikusmin handia piztu du aurten ere. J.A.


Gustura ibili ziren umeak, aparrarekin jolasean. JOSETXO ARANTZABAL


Zaldi eta behorrak ere izan ziren, baina hauek ikusgai bakarrik, azokan. J.A.

LANDETXEA - CASA RURAL
EGUZKITZA



ETA ORAIN ZERBITZU BERRIEKIN:
ZELULAK BIRSORTZEKO KAPSULA ETA MASAJEAK
Eibarreko errepidea z/g
Tel. eta faxa: 943 78 90 84 Poltsikokoa: 679 41 66 97
e-posta: casaeguzkitza@hotmail.com

**ZERBITZUAK** > GARAGARTZAKO ORTU EKOLOGIKOAK

# 134 lagunek eman dute izena, oraingoz, ortuen zozketarako

Uztailaren 10a (egubakoitza) da izena emateko azkeneko eguna; uztailaren 29rako argitaratuko du Udalak zozketarako behin betiko zerrenda



Argazkiak erakusten duen moduan, gertu-gertu daude Garagartzako ortuak, erabiltzaileak noiz joango zain. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE
"Martxa ona" darama ortu ekologikoetarako izenemateak. Azken orduko datuak esku artean, 134 lagunek eman dute izena, oraingoz (egubakoitzeko, uztailaren 3ko datuak).

**GIZONAK ETA 51-60 URTEKOAK**
Momentuz, izena eman dutenen artean, gizonezkoak dira gehienak; izan ere, 29 emakume bakarrik animatu dira. Adin tarteari begiratuta, berriz, 51 eta 60 urte bitartekoak dira gehienak. Eta 70etik gorakoak, gutxiengoa.

Deigarria da, baita ere, uste baino erretiratu gutxiagok eman duela izena eta gazte jendea ere badabilela animatzen. Adibidez, izena eman duen gazteenak 21 urte ditu.

**SEXUEN PROPORTZIOA ZAINDU**
Baina, eta emakume gutxiagok izena eman duen arren, parekotasun legea kontuan hartu eta "proportzioa mantendu" egingo dute ortuak banatzeko orduan; "Adibidez, baldin badaude 75 gizon eta 25 emakume, proportzio hori mantendu egingo da. Hori horrela, 40 ortu baleude banatzeko, izango lirateke 30 gizonendako eta 10 emakumeendako", argitu du Peio Garaik, Ingurumen Saileko udal teknikariak.

**URRIAN ORTUEN BANAKETA**
Izenemate epea bukatuta (uztailaren 10a da azkeneko eguna), urrian banatu gura ditu Arrasateko Udalak ortuok.

Hori bai, urria iritsi baino lehen izango dute zeregina: "Uztailaren 17rako behin-behineko zerrenda izango du Udalak eskuartean; hori egiaztatu egin behar da, adibidez, etxe edo familia bakoitzeko ortu bat hartu ahal izango da… Guztia egiaztatu ostean, onartutakoen zerrenda argitaratuko dugu Udalaren webgunean eta gure iragarki taulan. Norbaitek gura izanez gero alegazioak egin, dauzka 10 egun alegazioak egiteko eta, behin horiek jasota, uztailaren 29an izango dugu behin betiko zerrenda. Eta irailaren lehenengo astean egingo dugu zozketa. Hori horrela, irailaren 14rako izango dugu zerrenda ofiziala eta horren ondoren egingo dugu ikastaro bat. Zertarako? Erakusteko baratze-zaleei modu ekologikoan zela jarduten den. Urriaren lehen egunetarako banatu gura ditugu baratzak", zehaztu du Garai udal teknikariak.

**ORTUA DUTENETAKO GUTXIK**
Bestalde, Garagartzako 87 ortu ekologikoak egokitzeko orduan, Udalak iragarri zuen 40 ortu izango zirela lehenagotik Arrasaten ortua baduten herritarren artean zozketatzeko, bereziki Santa Marina, Makatzena, Uribarri eta Garagartza inguruetan ortua dutenendako.

Bada, kontua da halako oso gutxik eman duela izena zozketan parte hartzeko. Datu bat: ekainaren 26rako oraindik batek ere ez zuen izena eman; beraz, joan den astean joan diren apurrek eman dute momentuz izena. Eta hori ikusita, udal teknikariak azpimarratu gura izan du haiek ere derrigorrezkoa dutela izena ematea: "Gaur egun ortua dutenek ezinbestekoa dute fitxa berria bete, nahi badute behintzat Garagartzako eremu horretara joan. Nahiz eta batzuek bi urte dela fitxa bete, fitxa horrek ez du balio. Akaso horrexegatik *erlaxatu* dira batzuk", dio udal langileak.

**sailkapena**
**Adinaren arabera**

| | KOPURUAK ZENBAKITAN |
|---|---|
| 21-30 urte | %15 |
| 31-40 urte | %19 |
| 41-50 urte | %21 |
| 51-60 urte | %26 |
| 61-70 urte | %16 |
| 70etik gora | %3 |

ITURRIA: ARRASATEKO UDALEKO INGURUMEN SAILA

**GARAPEN URBANISTIKOA**
Horrela, teknikariak azpimarratu gura izan du lehenagotik dauden ortuak alegalak direla eta gainera, Egitamu Orokorraren arabera, "inguru horietan garapen urbanistikoa egingo dela. Hori da ortu horiek daukaten etorkizuna. Horrek ez du esan nahi bihar burutuko denik. Badakigu gaur egun dugun krisi ekonomiko honetan, garapen urbanistiko edo etxebizitza gutxi eraikitzen dituztela gure bazterretan. Hala ere, Udalak azaldu du baduela asmoa udalerrian egiten diren txabola edo baratza guztiak antolatzeko eta ikerketa bat egiteko eta oro har, egoera hori zuzentzeko".

**HERRITARREN KEZKA**
Bukatzeko, ortuok urrutiegi daudela-eta entzun diren kexuen harira, Peio Garaik onartu egin du urruti badaudela. Baina puntualizazio batzuk ere egin ditu: "Nekazaritzako lur denak okupatuta daude herrian, ikusi dugun toki bakarrenetako bat da Garagartza. Gure Sailetik askotan bultzatzen gabiltzana egin daiteke: bizikleta erabil daiteke, bide laua daeta, bidegorria ere ingurura iristen da, eta badirudi egingo den bidegorri berria bertatik pasatuko dela, kotxea konpartitu daiteke… Garraio publikoa ere badago, maiztasun handia ez dauka, baina gura dugu garraio publikoa egokitu eta maizago egotea. Baina ulertu behar da ortuak aisialdirako direla eta kontzeptu horren barruan hartu behar dira".

ORTU EKOLOGIKOEN FUNTZIONAMENDUAREN XEHETASUN BATZUK

## Txartel elektronikoa, ortu ekologikoak eskuratuz gero

Arrasateko Udalak ortu ekologikoak egokitzeaz gainera, ekipamendua ere prestatu du ingururako: "Garagartzan bertan dago etxetxo bat eta hor egingo dira denondako ekipamenduak. Egongo dira aldagelak, komunak, tresneria… Hara sartzeko bakoitzak izango du txarteltxo bat, bakarrik baratze-zale horrek erabil dezakeena, ezin diezaioke eman lagun, auzokide edo ezagun bati. Ortua tokatu zaionak bakarrik dauka eskubidea han ibiltzeko".

Udal teknikariak aditzera eman du, gainera, horren gaineko kontrola edo zaintza egin egingo dutela: "Pertsona bat egongo da astean birritan-edo. Bestalde, 80 pertsona familia txikia da eta han ezezagunen bat baldin badabil barrura eta kanpora sartzen teknikariak galdetuko dio. Horrez gainera, erabiltzaileak berak ere hartu beharko ditu neurriak".

Eta ortuen ordutegia ere badute pentsatuta: Argiaren araberakoa izango da: udan 07:30-08:00 aldera zabaldu eta 21:00 aldera itxiko dute. Neguan 08:00 aldera zabaldu eta 06:00 aldera itxiko dute.

**ZERBITZUAK**

# Biblioteka goizez eta arratsaldez zabalik

Urteotan, uztailaren 15etik goizez zuten zabalik; aurten, goizez eta arratsaldez

**U.M.**> ARRASATE
Uztailaren aurrenengo egunetik aurrera, zerbitzu ugarik ordutegia egokitu egiten dute udako sasoira. Arrasaten ere hala izaten da, adibidez, zerbitzu publikoen kasuan; askok goizez bakarrik jarduten dute. Aurten, baina, udal zerbitzu horietako batek azken urteotakoa baino ordutegi zabalagoa eskainiko die herritarrei udan: Udal Bibliotekak. Izan ere, aurten biblioteka goizez eta arratsaldez zabalduko dute uztail eta irail osoan.

**20:00AK ARTE ZABALIK**
Azken bizpahiru urteotan, biblioteka abuztuan zabaltzen hasi zirenetik, uztailaren 15etik aurrera goizeko ordutegia izan du bibliotekak, irailaren erdialdera arte.

Kontuak kontu, aurten goizez eta arratsaldez zabalduko dute: 10:00etatik 13:00ak arte goizez eta 16:00etatik 20:00ak arte, arratsaldez. Irailaren 14ra arte ibiliko dira horrela.

Hori bai, abuztuan goizez bakarrik jardungo dute. Ordutegia handitzea erabaki politikoa izan dela kontatu dute Udal Bibliotekakoek.

**BAZ ETA KIROLDEGIA**
Biztanleen Arreta Zerbitzuari dagokionez, berriz, uztailean neguko ordutegi bera izango dute bulegoek: 08:30etik 19:00ak arte eta zapatuetan, 09:00etatik 13:00ak arte. Abuztuan, berriz, goizez egongo dira, 08:30etik 14:00ak arte. Zapatuetan itxi egingo dituzte BAZeko bulegoak.

Bestalde, Musakolako kiroldegian, uztailaren 1az geroztik, instalazio orokorretako ordutegia zabaldu egin dute, 09:00etatik 21:00ak arte. Eta igerilekuei dagokienez, berriz, 10:00etatik 20:30ak arte daude zabalik. Abuztuan ere ordutegi berori izango dutela jakinarazi dute.

**ARRASATEKO URBANOA**
Udako ordutegien gainekoarekin bukatzeko, Arrasateko urbanoari dagokionez, horrek ere izango ditu aldaketak, baina abuztuan bakarrik. Hain justu ere, zapatuetan moduan jardungo dute abuztuan; bestela esanda, ordubete geroago aterako dira autobusak: 09:00etan.

JENDARTEA > BITERI PLAZAREN ERABILERA

# Lehenaren dinamikari eusteko, Udalak herritarrak deitu ditu bigarren bilerarako

Udalak Aldundiaren laguntzaz abiarazitako Biteri plazaren erabilera funtzionala areagotzeko parte-hartze proiektua aurrera doa; bihar egingo dute bigarren bilera, Udaleko pleno aretoan, 19:00etan



Joan den maiatzaren 26an egin zen Biteri plazaren inguruko lehen bilera "oso positiboki" baloratzen du Udalak. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Azken urteotan behar den moduko erabilera izan ez duen arren, herritarrendako gune garrantzitsua da Biteri plaza eta arrasatearrak ez dira herriko txoko horretaz ahaztu. Hala, hainbat dira plaza nola geratu den batere gustuko ez dutenak; batek baino gehiagok *Biteriko gasolindegia* deitzen dio.

Bada, Biteri plazarekin herritarrek izan dute aukera euren iritzia eman eta ekarpenak egiteko, Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak –Kudeatuz programaren barruan– aukeratutako Siadeco aholkularitza enpresaren laguntzaz martxan jarri zuen plazaren erabilera funtzionala areagotzeko proiektuari esker. Lehen bilera maiatzaren 26an egin zen.

**LEHEN BILERA, ARRAKASTATSUA**

Lehen bileraren parte-hartzea, Udalak jakinarazi duenez, "nahiko altua izan zen. 40 herritar inguruk hartu zuten parte eta oso positiboki baloratzen dugu, bai asistentzia eta baita herritarren ekarpen eta gogoetak ere; oso ariketa interesgarria izan zen".

Lehen saio hartan elkarte moduan zein gaiak interesatuta norbanako moduan aurkeztu zirenak izan ziren. Orduan plaza historikoki zer izan zen gogoratu eta gaur egun duen funtzionamendua aztertu zuten. Eta gaur egungo egoeraren balorazioa egin ostean, herritarrek euren proposamena –bai funtzionalak zein teknikoak– egin zituzten.

DATUA

**40**

**HERRITAR INGURU**

Biteri plazako parte-hartze esperientziaren lehen bileran 40 arrasatearrek hartu zuten esku, elkarteren bat izenean edo norbanako moduan. Hainbat balorazio eta ekarpen egin ziren.

**BIHAR, ONDORIOAK ESTUTU**

Bihar egingo da bigarren bilera, Udaleko pleno aretoan (19:00). Udalak iragarri duenez, lehen bilerako ekarpenak laburtu eta ekarpenon inguruan euren iritzia edo, jakinarazi dutenez, "esateko duguna" mahai gaineratuko da bigarren saioan. Hala, ekarpen eta ondorioetan estutzen joatea izango da joera, beti ere Siadeco aholkularitza enpresaren babes eta oniritziarekin.

**PARTE-HARTZEA BULTZATUZ**

Proiektu berritzailea da Arrasaten Biteri plazaren parte-hartze egitasmoa. Bada, Udalak adierazi duenez, "parte-hartzea orokorrean gauzatu behar den kontua da, eta horretarako modurik onena herritarren –pertsona nahiz erakunde– eta Udalaren arteko komunikazioa da; berba egin, baina batez ere entzun". Azkenik, Udalak uste du parte-hartzea ez dela metodo isolatu bat izan behar.



ARANTZAZU EZKIBEL

## 'Egin dakizuna', ondo pasatuz ikasteko ekimena

Aurten urrats kualitatibo bat eman dute Gazte bulegoak eta Udaleko sexologia zerbitzuak. Zerbitzuak kalera atera eta herritarrei gerturatzeaz gain, gaztetxoek euren trebetasunak elkartrukatu dezaten ekimen bat abiarazi dute: *Egin dakizuna!*. Joan den eguenean hasi ziren hilabete osoan zehar luzatuko diren ekitaldiekin. Lehen eguna skatearen –irudian–, graffitien eta hankapaloen eguna izan zen. Egunenean, uztailak 9, gazte bidaiarien esperientziak entzun ahalko dira, Biteri plazan.

SAN JUANAK 2009 > BALORAZIOA

## Udala "oso pozik" jendearen jaietako erantzunarekin

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izan zen ekitaldi jendetsuena

**J.B.** > ARRASATE

San Juanetako garrak urtebete baino gutxiago itxaron beharko du berriz ere Arrasateko kaleak har ditzan. Jaiak bukatu dira, eta orain balorazio egiteko ordua da. Udala "oso pozik" dago 2009ko San Juanetan herritarrek izan duten erantzunarekin. Izadi Mondragon jaietako zinegotziak jakinarazi duenez, "ekitaldi ezberdin ugari egon dira eta gehienetan jende asko ibili da". Ekitaldion artean jendetsuena Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izan zela dio Mondragonek, baina azaldu duenez, "Bitter Honey, Los Galerna eta Ekon taldeen kontzertuak ere Monterron bete zuten". Horiez gain, Errementari Dantza eta ekainaren 25eko txosnaguneko kontzertuak –Last Rebels, The Motherfuckers eta Radio Dead Ones– ere nabarmendu ditu.

**GARESTIENAK, ARRAKASTA**

Jaietako gastuei erreparatuz, Mondragonek adierazi du aurrekontu gehien zuten ekintzak arrakasta izan dutela.



Sarrera parean dagoen paretan egin nahi du grafitia Udalak. JOSETXO ARANTZABAL

**UDALA** > OXIRONDO AZOKA

# Oxirondo azokan grafitia margotzeko lehiaketa deitu du Udalak

Azokak barruko aldetik margotzeko beharra du eta hori aprobetxatuta, paretetako baten bertako produktuak oinarri dituen grafitia egin nahi dute

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Oxirondo azoka biziberritzeko planaren barruan grafiti lehiaketa deitu du Udaleko Kultura Sailak. Helburua da azokan hutsik dagoen 7,05x8,2 neurriko pareta margotzea. Hala, lehiaketara aurkeztutako lanen artean epaimahaiak aukeratutako grafitia margotuko dute egileek azokako paretan.

Parte hartu ahal izango dute 2009an gutxienez 16 urte beteko dituzten debagoiendarrek edo ibarreko ikastetxeetan ikasten dutenek, bakarka zein taldeka.

Teknika librea izango da eta gaia, Bergarako azoka edo azokako produktuak. Gainera, grafitia testuarekin laguntzen bada, euskaraz izan beharko da.

Grafitiaren zirriborroa aurkeztuko da 34x29 cm-ko neurrian, formatu bertikalean eta euskarri gogorrean. Era berean cd-an ere aurkeztu beharko da. Aurkezteko azken eguna da hilaren 27a, kultura etxean edo *kultura@bergara.net* helbidean. Informazio gehiagorako deitu 943 77 91 zenbakira.

**AZOKA EGOKITZEKO LANAK**

Udalak azokan egokitzapenak egiten dihardu: iaz sarrerako malda egokitu zuten, ez labaintzeko tratamendua eman eta zutabeak babestu zituzten. Aurten barrutik margotuko dute, besteak beste.

**LEHIAKETA** > ARGAZKILARITZA

# Kirol argazki lehiaketa deitu du Udalak eta izena eman daiteke dagoeneko

Irailaren 10era arte aurkeztu ahal izango dira lanak, eta irailaren 18tik 27ra erakusketa egingo dute zenbait lanekin

**M.B.** > BERGARA

Kirol Argazki Lehiaketa deitu du Udalak. Euskadin bizi den edozein zalek har dezake parte. Gaiak ezinbestean kirola izan behar du eta zuri-beltzean edo koloretan aurkeztu ahal izango dira lanak eta laborategiko edozein teknika prozedura onartuko da.

Lan kopuruari dagokionez, mota bakoitzeko lau aurkez daitezke, 40x50 cm-ko kartulinan. Argazki paperaren tamaina eta argazkiko irudia ere bakoitzaren aukeran lagatzen dira.

Lanak irailaren 10era arte aurkez daitezke, udaletxera eroanda edo posta zertifikatuz bidalita honako helbidera: Bergarako Udala, Udal Kirol Zerbitzua (argazki lehiaketa), San Martin plaza, 20570, Bergara.

**SARIAK**

Epaimahaiak irailaren 12an emango du aditzera erabakia. Lau sari egongo dira: lehenengoa, 180 euro eta oroigarria; bigarrena, 150 euro eta oroigarria; hirugarrena, 120 euro eta oroigarria eta herriko onena, 90 euro eta oroigarria.

Aurkeztutako argazkien artean aukeraketa egin eta ikusgai jarriko dituzte Aroztegin, irailaren 18tik 27ra.

## oharrak

JAIAK

**> San Kristobal jaiak ospatuko dituzte asteon Aldai-Egia auzoan**

Eguenetik domekara arte izango dira jaiak Aldai-Egian. Eguenean pinua jasoko dute 22:00etan eta gero saiheskia, sagardoa eta txokolatea egongo da hurbiltzen diren guztiendako. Hilaren 10ean, San Kristobal eguna, meza izango da 12:00etan eta gero autoak bedeinkatuko dituzte. Hilaren 12an ere bedeinkatuko dituzte autoak, 12:00etako mezaren ondoren.

KZGUNEA

**> Uztailean ikastaro gehiago izango dira KZgunean**

Beste zortzi ikastaro egin ahal izango dira uztailean KZgunean: *Internet+e-administrazioa, sinadura elektronikoa, skype, blogger, Google maps eta earth, zuhaitz genealogikoa, Google tresnak,* eta *sare sozialak*. Uztailaren 6an hasiko da lehenengoa eta hil osoan barrena egingo dira guztiak. Informazio gehiago eta izenematea *tutor.bergara@kzgunea.net* eta 943 76 73 24 telefono zenbakian.



MONIKA BELASTEGI

# Asteon iritsi dira auzolandegiko 12 gazteak

Eguaztenean egin zieten harrera udaletxeko osoko bilkuren aretoan Estatu osotik Mizpirualden egingo den auzolandegira etorri diren gazteei.

Katalunia, Madril, Cadiz, Teruel... hainbat lekutatik etorri dira eta hilaren 14ra arte egongo dira hemen. Hilaren 16an bigarren txanda etorriko da.

Auzolandegiaren helburua da belaunaldien arteko trukea ematea, eta horretarako egoitzako egoiliarren dinamizazioan parte hartuko dute, besteak beste.

**KULTURA** > DIRU LAGUNTZAK

# Kultura taldeendako laguntzak abian dira

## Guztira 54.000 euro banatuko ditu Udalak herriko irabazi asmorik gabeko taldeen artean

**MONIKA BELASTEGI**> BERGARA

Herriko irabazi asmorik gabeko kultura taldeei eta elkarteei 2009an garatuko dituzten jarduetarako eta ekintzetarako dirulaguntzak emateko baldintzak kaleratu ditu Udalak. Jarduera horiek bat etorri beharko dute Jai batzordearen helburuekin, hala nola: herrian kultura jarduerak eskaintzea, herrian zein kanpoan egindako jardueraz Bergarako herriaren izena ezagutzera ematea, herriko jardueretan parte hartzea eta herritarren eta gainerako kultura elkarteen arteko lankidetza bultzatzea.

Onuradunen betebeharren artean dago urtean gutxienez bi ekitaldi antolatzea edo antolatutakoetan parte hartzea.

Guztira 54.000 euro bideratuko ditu Udalak laguntza horretara.

**ESKAERAK EGITEKO EPEA**

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira baldintzak GAOn argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean. Eskaerok aurkezteko lekua da Udaleko Erregistro Orokorra, astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 ordutegian. Oinarriak *www.bergara.net* webgunean eskura daitezke.

> IZENEMATEA

### Gabonetan Munibe plazan jartzen den artisau azokarako izenematea zabalik dago

Udalak kaleratu berri ditu Gabonetan Munibe plazan egiten den artisau azokan parte hartzeko baldintzak. Dagoeneko aurkez daitezke eskariak, irailaren 4ra arte, Udal Erregistroan. Eskaerak aurkez ditzakete Euskal Herriko zazpi probintzietako artisauek eta derrigorrezkoa izango da lurralde horietakoren bateko eskulangintza tradizional eta herrikoiaren errolda orokorrean inskribatuta egotea. Bestalde, eskaera egin duen artisauak berak egindako edo ekoiztutako produktuak saldu beharko ditu.

Azoka egingo da abenduaren 18tik 20ra bitartean, Udalak Munibe plazan egokituko duen karpan.



GOIENKARIA

## Egino-Malleako plaza, lagata

Egino-Malleako jauregi aurreko plaza oso zikin dagoela-eta kexu da herritar bat. "Ez dut gogoratzen garbitzailea pasatu zen azken eguna", dio. "Turistekin egiten diren bisita gidatuak honaino iristen dira Egino-Mallea etxeak duen balioagatik, baina badirudi horrek ere berdin duela, ingurunea beti zikin egoten da-eta", gehitu du.




Irudian, pilotariak pozik Donostiako Atano III.a pilotalekuan herri arteko txapelketa irabazita. GOIENKARIA

**KIROLA** > BERGARA KIROL ELKARTEA

# Bergara Kirol Elkarteak aspaldiko urte onena egin du

## Pilotan herri artekoa, futbolean preferentea eta eskubaloian igoera dira lorpenetako batzuk

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bergara Kirol Elkarteak batzar orokorra egin zuen joan den asteko egubakoitzean, eta aspaldi ez bezalako kirol lorpenak errepasatu zituzten.

Futbolean, Manu Diazen taldeak preferentera lortutako igoera izan da lorpenik azpimarragarriena, eta baita gazteek euskal liga kategoria gogorrean egindako denboraldi ona ere. Baina ezin dira alde batera utzi emakumezkoek lortutako Gipuzkoako txapelketak.

Pilotan ere lorpen galanta egin dute: Bergarak 41 urte geroago Herri Arteko Txapelketa irabazi du eta kadeteek Debarroko txapelketa poltsikoratu dute.

Baina futbolarekin eta pilotarekin batera, hor daude eskubaloikoek irabazitako Gipuzkoako kopa eta saskibaloikoek eskuratutako igoera.

**TALDE GEHIAGO**

Datorren denboraldiari begira BKEk esfortzu berezia egingo du, eta talde gehiago aterako ditu, batez ere saskibaloian –lautik zazpira–.

Horrek denboraldiaren garestitzea ekarriko du. Elkartearen 2009-2010 denboraldirako aurrekontua izango da 184.230 eurokoa –bukatu berri dugun denboraldian izan da 171.081ekoa–. Hala eta guztiz ere, elkarteko bazkideek ez dute igoera hori nabarituko, kuota mantendu egingo zaie-eta.

**KIROLA** > IGERIKETA

# Igeriketa plana egin du Udalak ume eta gazteendako

**M.B.** > BERGARA

Kirol Sailak umeen eta gazteen ur jardueren eskaintza antolatu eta bateratzeko asmoz egitasmo berezia prestatu du: igeriketa plana, hain justu. Igeriketa taldearekin eta Gipuzkoako Igeriketa Federazioarekin batera prestatu du plana, ur jarduerak eta igeriketa jarduerak berebiziko garrantzia dute-eta Agorrosin Ekintza Guneko hezitzaileentzat.

Planean, beste gauza batzuen artean, igeriketa eskolak eta kluban parte hartzeko aukera egongo da. Izena emateko epea uztailaren 13ra bitartean egongo da zabalik.

Halako egitasmo integrala Gipuzkoan egiten den lehen aldia da. Hala, igeriketa prozesua hiru etapatan antolatu dute: igeriketa eskola, 2-8 urte bitartekoendako; igeriketaren kirol hastapena, 8-12 urte artekoendako eta partehartze eta errendimendurako igeriketa kluba.

**ESKOLA KIROLA**

Kirol Sailetik esan dutenez, eskola kirolaren gaineko asebetetze inkesta egin dute eta "oso nota ona" jaso du. "Batez beste 8,79ko nota eman diote ikasleek".



**TURISMOA** > UDA'09

# Uztailean eta abuztuan irteera bereziak egingo dituzte Arrikrutzen

'Arrikrutz zuzen-zuzenean', 'Arrikrutz kanpotik' eta 'Arrikrutz barne-barnetik' dira eskainiko dituzten bisita gidatu bereziak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Oñatiko Turismo eta Garapen Agentzia bisita gidatu bereziak egiten hasi da Arrikrutzen. Azken bi urteotan egin duten bisitari, beste hiru gehituko dizkiote; hain zuzen ere, *Arrikrutz zuzen-zuzenean*, *Arrikrutz kanpotik* eta *Arrikrutz barne-barnetik*. Bisita berezi horiek egun zehatz batzuetan egingo dituzte. Atzo egin zituzten *Arrikrutz barne-barnetik* eta *Arrikrutz kanpotik* bisitetako lehen irteerak. Hurrengoak izango dira: *Arrikrutz zuzen-zuzenean* hilaren 11n eta 25ean eta abuztuaren 1ean, 15ean eta 29an, 10:30ean euskaraz eta 11:00etan espainolez; *Arrikrutz kanpotik* hilaren 18an eta abuztuaren 8an eta 22an; eta *Arrikurtz barne-barnetik* hilaren 19an eta abuztuaren 9an eta 23an.

Edozein bisita egiteko, ohikoa edo bereziak, aurrez erreserba egitea aholkatzen dute 943 08 20 00 telefonora deituz.

Irailera arte ohiko bisitak egunero egingo dituzte, astelehenetan izan ezik.

**HIRU IBILALDI BEREZI**

*Arrikrutz barne-barnetik* ibilaldiak koba barrutik ezagutzeko aukera eskainiko du, pasarelatik kanpo. Aldaola errekan hasiko da ibilaldia, eta eszentrika izena duen estalaktita berezi bat ikusteko aukera egongo da. Bisita horretan parte hartzen dutenek arropa egokia, katiuskak eta frontala eroan beharko dute.

Beste ibilaldi berezia *Arrikrutz zuzen-zuzenean* izango da. Ohiko musikarik gabe, gidariak emango ditu azalpenak. Hirugarren eta azken bisitak Arrikrutz kobaren kanpoaldea ezagutzeko aukera emango die turistei; hain zuzen ere, Gesaltza-Arrikrutz sistema karstikoa.

**PARROKIA ETA UNIBERTSITATEA**

Bestalde, abuztuan egunero egingo dituzte bisitak parrokiara eta unibertsitatera, astelehenetik egubakoitzera 17:00etan eta zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan 12:00etan. Uztailean, aldiz, zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan bakarrik egingo dituzte.



Arrikrutz kobako sarrera. GOIENKARIA

## Euskal artzainen bideak ezagutzeko aukera

Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziak prestatu duen Uda' 09 egitarauan euskal artzainen bideak ezagutzeko irteera aurreikusten dute. Ohikoa ez den bidaia proposatzen dute, euskal artzainen mundua hurbiletik ezagutu ahal izateko. Irteera horietan parte hartzen dutenek Gomistegi baserriari egingo diote bisita lehen-lehenik; besteak beste, baserriaren jatorria eta eguneroko lana ezagutzeko aukera izango dute. Era berean, Euskal Herriko baserriaren funtzionamendua zertan datzan azalduko dute. Gainera, turistek hala eskatuz gero, artzain-txakurren erakustaldia egingo dute. Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko 943 25 10 08 telefonora dei daiteke.

## Ume eta helduak udako kirol kanpainako lehen txandan

Udako kirol kanpainaren lehen txandak eta txanda bakarrak lehen astea bete dute. Umeak eta helduak buru-belarri ibili dira kirol ezberdinetan. Patinaje ikastaroak arrakasta izan du umeen eta helduen artean. Egubakoitzean bukatuko dute lehen txanda. Txanda bakarrean dihardutenek hil bukaera arte jarraituko dute kirola egiten.

Bestalde, bigarren txandan parte hartu gura dutenek aukera dute oraindik ere izena emateko. Hain zuzen ere, hilaren 13tik 24ra egingo dute bigarren txanda. Abuztuko bi txandetan (3tik 14ra eta 17tik 28ra) ere tokia dute kirol eskaintza guztietan. Izenematea, kiroldegiko bulegoetan.



MIREIA BIKUÑA

**ERREPIDEAK**

## Udanarako errepidea konpondu egingo dute

Jaumendiko biribilgunetik Udana hasiera arteko bidea berrituko dute

**M.B.** > OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1,5 milioi euro inbertituko ditu GI-2630 errepideko zorua berritzeko eta konpontzeko. Hain zuzen ere, Jaumendiko biribilgunetik hasi eta Udana hasierara dauden 3,5 kilometroak. Lanak Construcciones Publicas Coprisa SA enpresak egingo ditu, bost hilabeteko epean.

**LANAK, LAU ZATITAN**

Proiektuaren arabera, berrikuntza lau zatitan egingo dute. Lan horietan, bide zoruaren egitura birgaitu eta betun nahasketa beroko bi geruza zabalduko dituzte, besteak beste. Gainera, drainatze sarea hobetu egingo dute.

> LEHIAKETA

### Jai egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa, bukatzear

Hilaren 13an itxiko dute San Migel jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketara proposamenak aurkezteko epea. Lanak Turismo Bulegoan edo kultura etxean utzi beharko dira.

Lehiaketan parte hartzeko oñatiarra izan edo Oñatin bizi beharra dago. Parte-hartzaileek teknika librea erabili ahalko dute. Lehiaketa irabazten duen irudiaren jabeak 250 euro eskuratuko ditu, eta irudia San Migel jaietako azalean agertuko da. Bigarren lan onenak 125 euro jasoko ditu.

> INFORMATIKA

### Uztailean askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean

KZguneak askotariko ikastaroak egingo ditu uztailean zehar. Besteak beste, *Internet eta E-Administrazioa*, *Wikipedia*, *Sinadura elektronikoa* eta *Google erremintak* dira egingo dituzten ikastaroetako batzuk.

Interesatuek informazioa jasotzeko edo izena emateko KZgunera jo beharko dute, astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era.

**ESKORIATZA** > ENERGIA

# Bi instalazio fotovoltaiko jartzen dabiltza Luis Ezeizan eta liburutegian

Joan den astean hasi ziren langileak instalazioak jartzen eta asteon amaitzeko asmoa dute

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Atzerapenarekin bada ere, datozen egunotan bi instalazio fotovoltaiko berri egongo dira Eskoriatzan: Luis Ezeiza herri eskolan bata eta Udal Liburutegian bestea. Orain dela hainbat egun liburutegiko teilatuan segurtasun neurriak jarri zituzten eta martitzenean eguzki panelekin hasi ziren. Luis Ezeizan, berriz, ez dute babes neurri berezirik jarri behar izan, teilatua laua da-eta.

Udaletik iragarri dute asteon amaituko dituztela langileek lanak eta eguzki plakek sortzen duten argindarra ez dela zuzenean eraikin horietan erabiliko; sarean txertatu eta saldu egingo dela.


Udal Liburutegian eguzki plakak jartzen dihardute egunotan. M.B.

**TRAMITEETAN, ALDAKETAK**

2008ko hasieran Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak lankidetza hitzarmena sinatu zuten, energiaren arrazoizko erabilera eta energia berriztagarrien ustiapena sustatzeko. Instalatzaileak irailaren 23an egon ziren bi eraikin horiek ikusten eta lanak azaroan egitekoak ziren. Baina horiek jartzeko bete beharreko tramiteetan aldaketak izan dira; eta, ondorioz, lan horiek orain arte atzeratu dira.

**ARETXABALETA** > ADINGABEAK

## Udalak arrisku egoeran dauden gazteendako zerbitzua jarriko du abian

**M.B.** > ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak Gizarte Heziketa Zerbitzua kontratatuko du datozen lau urteotarako. Bi hezitzaileen zeregina izango da gizarte zerbitzuko udal teknikariekin elkarlanean adingabeen jokaera eta ezaugarriak aztertzea, heziketarako jarraibideak eskaini eta motibazio, gaitasun eta baliabideak bultzatu.

Udal iturriek jakinarazi dute zerbitzu horrek hainbat arazo zehatzetan arreta berezia jarriko duela; esaterako, gazteak eskolan egokitu ezina, eskola gazteegi uztea eta droga kontsumitzen gazte hastea.

**DIAGNOSTIKOA**

Prebentziorako zerbitzuak joan den irailean jarri zuen martxan adingabeen egoera aztertzeko proiektua. Horren helburua zen kale heziketa behar ote den edo ez zehaztea. Horretarako, lehenik eta behin, gazte aretxabaletarren bizimodu eta ohituren gaineko diagnostikoa egiten ibili ziren bi hezitzaile abendura arte. Gainera, herrian gazteendako dauden azpiegiturak eta baliabideak aztertu eta, horren harira, gainontzeko herritarren iritzia jaso zuten. Jasotakoa aztertu ostean, Gizarte Heziketa Zerbitzua jartzea erabaki dute.

> ARETXABALETA

### Udako zinemari hasiera emango diote eguaztenean Arkupen, 'Ángeles y Demonios' filmarekin

Etzi, eguaztena, udako zinema hasiko da Aretxabaletan. Udan eskainiko duten lehen filma *Ángeles y demonios* izango da. Hiru egun egongo dira ikusteko: eguaztenean eta egubakoitzean, 21:30ean; eta astelehenean, 16:00etan. Prezioa bi euro izango da. Orain arte udako zinema plazan izan bada ere, aurten Arkupeko Zaraia aretoan ematea erabaki du Udalak.

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA **V. LEHIAKETA**

**Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak**

**...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: *www.goiena.net/blogak/argazkiak***

IAZKO IRABAZLEAK

**Har ezazu parte!**


XABIER ARABAOLAZA


MIREIA LIZARRALDE


JOSE RAMON TXINTXURRETA

**Baldintzak**

- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da uztailaren 3an eta amaituko da irailaren 18an.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri:
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta
  - Basabe poligonoa E-0-5, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Parte-hartzaileek, gehienez, 5 argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren erreferentzia (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn eta *Goiena.net*-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere emango dira.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 5ean jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Onenak aukeratuko ditugu orri batean kabitzen direnak argitaratzeko, egilea aipatuz eta beste komentario labur batekin.
- Epaimahaiak argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiltzea erabakitzen, badugu egilearen izena ipiniko dugu.

**Sariak**

**1. saria: Olympus E-420 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
Live View AF sistemarekin. / 10 milioi pixel. / Zuiko digital 14-42 mm-ko objektiboa. / Flash eta guzti. 2,7 hazbeteko LCD pantaila atzealdean.









**2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiak-en eskutik.
**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:

kiñu argazkilariak
OLYMPUS Your Vision, Our Future
Arrasate Bidaiak BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA
GURE AMETSA JATETXEA
ASTELEHENEKO Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa

**Harpidedun egiteko:**
**943 08 10 50**
Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara




Iazko jaietan marmitako lehiaketa egin zuten antzuolarrek. GOIENKARIA

**ANTZUOLA** > JAIAK

# Paella lehiaketa izango da jaietako egubakoitzean

## Uztailaren 10a izango da azken eguna udaletxera deituz edo e-posta bidaliz gastronomia lehiaketan izena emateko

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Iaz ipini zuten abian gastronomia lehiaketa jaietan eta bigarren aldia izango da aurtengoa. Marmitakoa gertatzen antzuolarrek zuten abilezia erakutsi zuten iaz, eta aurten, paellak hartuko du tokia.

Lehiaketa uztailaren 17an, egubakoitzean, izango da pilotaleku txikian, baina lehiakideek aurrez eman beharko dute izena. Horretarako azken eguna uztailaren 10a, egubakoitza, izango da eta udaletxera deitu (943 766 246) edo e-posta bidali (*kultura@antzuola.net*) beharko dute gastronomia lehiaketan parte hartu nahi dutenek.

Parte hartu ahal izango dute Antzuolako gastronomia elkarteetako kideek, auzotarrek, koadrilek, herriko edozein elkartek zein lehiaketarako propio osatutako taldeek, betiere Antzuolan jaio edo bizi direnek, eta bi edo hiru laguneko taldeetan.

**UDALAK, MATERIALA**

Sukaldariek paella gertatzeko abilezia ipiniko dute eta Udala arduratuko da jakiak, sua eta mantalak ipintzeaz. Paella gertatzeko ontziak ere Udalak ipiniko ditu, baina gainontzeko ontziak eta sukalderako tresnak (sardexka, labanak...) partaideek eraman behar dituzte.

Parte-hartzaileek uztailaren 17an 11:30erako pilotaleku txikian egon beharko dute; 11:45ean paella gertatzen hasi eta 13:15erako amaituta izan beharko dute.

Jana lehiaketa garaian gertatu beharko dute eta aurrez eginda salda edo fumeta baino ezingo da eraman. Paella guztiak gertu daudenean Antzuolatik kanpoko jendeak osatutako epaimahaikoak elkartuko dira erabakia hartzeko.

Ondoren, 13:30ean, Udalak emandako sariak banatuko dituzte eta frontoira gerturatzen direnek paella probatzeko aukera izango dute.

**ELGETA** > EUSKARA

# Ana Gillegi: "Arduratuta gaude, ze herriko umeek gero eta gutxiago egiten dute euskaraz"

## Euskara eta Kultura zinegotziak uste du umeek duten erdararako joera arazo bihurtzen dabiltza herrian

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

"Erderak indar handia hartu du eta arduratuta gaude euskara maila zelako txarra den ikusita". Argia izan zen Elgetako Euskara eta Kultura zinegotzi Ana Gillegi aurreko astean GOITBko *Magazinea* saioan egindako elkarrizketan. Eskolako kontseiluko kide ere badela adierazi zuen, eta hor ere egoerarekin konturatuta daudela esan zuen. "Elgetako eskolan 12 urtera arte egoten dira umeak eta koadrila batzuk erdara hutsean egiten dute. Badakit zaila dela umeen ohiturak aldatzea, baina Udalak eta Eskolak elkarrekin lan egin beharko dugu arazo bihurtzen ari den kontu honi irtenbide bat emateko".

Elgetako euskara mantentzearekin ere arduratuta agertu zen Gillegi, eta Ahotsak proiektuaren garrantzia azpimarratu zuen ahalegin horretan. "Euskaraz askok egiten dugu herrian, baina Elgetako euskaraz ondo, gutxik. Elgetako nagusiei euren kontakizunak grabatzen jarraitzen dugu. Euskara hori jaso eta transmititu beharra daukagu, nire ustez".

**EUSKARA PLANA**

Elgetako Udala Ueman – Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea – sartu berria da. Gillegik azaldu du Elgetan hainbestetan euskatu den Euskara Plana izango dela erabaki horren lehenengo fruitua. "Esan digute, eta konpromiso hori hartu dute gurekin, aurrorako gertu egongo dela". Udalaren barne funtzionamendua gehiago euskalduntzen lagunduko du Euskara Planak, baita kanpo harremanak ere.

**ARAMAIO** > ZERBITZUAK

# Eguneko zentroa urtea amaitu baino lehen hasiko dute

## Arabako Foru Aldundiak aste honetan iragarri du 150.000 euroko laguntza emango duela Aramaion eguneko zentroa eraikitzeko

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Eguneko zentroaren proiektua Udalak nahi baino polikiago doa, baina, badirudi azkenean ere urtea amaitu baino lehen hasiko dituztela lanak. Diputazioak hitzez aginduta zeukan Udalari diru-laguntza emango ziola Aramaion eguneko zentroa eraikitzeko. Orain, Diputazioak prentsa ohar baten bidez ziurtatu egin du hori: 150.000 euro emango dizkio, hain justu, Udalari. Proiektuaren aurrekontuaren %80 suposatzen du horrek. Falta den %20 Udalak ipiniko du. Aldundiak asteon publiko egindako oharrean esaten da, baita ere, aurten hasiko dituztela lanak.

Lurgorri pasealekuan kokatuko dute eguneko zentroa eta Udalak dagoeneko landuta dauka proiektua. 130.000 metro koadro izango ditu eta gela nagusia, jantokia, atseden lekua, sukaldea, biltegia eta erizaintza gela izango ditu, besteak beste.

Orain bakarrik falta da Diputazioak eta Udalak hitzarmena sinatzea. Udalak espero du hil honen bukaeran egitea hori.



Lurgorri pasealekuan eraikiko dute eguneko zentro berria. JONE INUNTZIAGA

**LEINTZ GATZAGA** > AISIALDIA

# Gaur hasiko dituzte udalekuak 17 neska-mutikok

## Udalekuetan izena emandako gehienak gaztetxoak dira, 2 eta 9 urte artekoak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako neska-mutikoek gaur, hilak 6, hasiko dituzte Gurel guraso elkarteak antolatutako udaleku irekiak. 17 neska-mutikok eman du izena dagoeneko, eta azken orduan animatzen direnek oraindik aukera daukate udalekuetan jarduteko. Labidea dendan jakinarazi dezatela interesatuek.

**BI ASTETAKO EGITARAUA**

Aste bi dituzte aurrez aurre jolasak, eskulanak, irteerak eta beste hainbat kontu egiteko. Gaur arratsaldean elkartuko dira lehen aldiz San Migel plazan eta arratsaldero izango dute hitzordua datozen egunotan. Aurten inoiz baino gazteagoak eman dute izena eta gehienak 2 eta 9 urte arteko neska-mutikoak dira. Izan ere, nagusiagoak kanpora joan dira udalekuetara. Eta udaleku irekietako neska-mutikoen ardura dun Gatzagako begiraleak izango dira, aurreko urteetan ez bezala.

Orain hilabete inguru aurkeztu zieten udalekuetarako gertatutako egitaraua Gureleko kideei eta aurreko urteetako antzeko ekintzak egingo dituzte, horiek direlako ume eta gaztetxoek gustukoen dituztenak: San Fermin jaiak, eskulanak eta jolasak, Landara irteera, Dorletan kanpaldia... eta beste hainbat. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, arrakasta ziurtatuta daukate Gatzagako udalekuek.

# Kirola



**> TOURREKO PORRAK**
1.500 apustutik gora jaso dituzte Lokatzakoek eta Monte tabernakoek > 22



**> ARETO FUTBOLA**
Santana River taldea onena Bergarako San Martzial txapelketan > 23



**> TXIRRINDULARITZA**
Yelco Gomez panamarrak irabazi du Dorletako Ama sariketa Gatzagan > 24-25




**JAUZIA** Ahaleginak eta bi egin arren, ezin Mendizabalek irabazi JOSETXO ARANTZABAL



**PROTAGONISTAK** Lau finalistak, udaleko, diputazioko, federazioko eta ETBko ordezkariekin, besteak beste. J.A.



**PAREKATUA** Oso partidu polita jokatu zuten kadete mailan Jakak -ezkerrean- eta Elezkano II.ak. J.A.

**PILOTA** > ELGETAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

# Mendizabalek mikatza, Ricorentzat gozoa

**EZINA**
Antzuolakoak ez zuen aukerarik izan partidu erditik aurrera

**KADETEAK**
Jakak irabazi egin zion Elezkano II.ari, final ederrean

**JULEN IRIONDO** > ELGETA

Egun handietako itxura zuen bariku gauean Elgetako pilotalekuak, eta horrela zen izan. Goraino bete zen Lau t'erdiko ETB Kantxa txapelketako finalerako –hasi baino ordu erdi lehenago hala zegoen, eta tartean Julian Retegi, Jokin Etxaniz eta Pablo Berasaluze, besteak beste–. Tenperatura beroa –31'5 graduraino–, eta giroa are beroagoa, batez ere Antzuolatik Aitor Mendizabal animatzera joandakoek jarria.

**RICO, DENEAN HOBETO**

Baina Mendizabalek ezin izan zien herrikideei emandako babesa gura moduan eskertu. Rico gehiago izan zen, eta ondo irabazi zion. Bederatzinako berdinketara arte bakarrik egon zen parekatuta markagailua. Baina Ricok hobeto sakatu zuen, pilotari biziago eman zion eta tantoa bukatzen ere gehiago asmatu zuen.

12 eta 19ra joan zen urdina. Itxaropena orduan piztu zitzaien berriro antzuolarrei. Hiru jokaldi on egin, beste hainbeste tanto, eta Ricorengandik laura jarri zen Mendizabal. 16.a egiteko ere eduki zuen aukera, baina bolea behartua txapara joan zitzaion azkenean. Azkeneko bi tantoak sakez egin zituen Ricok. 15 eta 22 amaitu zen 23 urtez azpikoen finala.

**IKUSKIZUN HANDIA**

Kadete mailako finala ikaragarri polita izan zen. Joko bizia egin zuten Elezkano II.ak eta Jakak, ahal bezain bizkor tantoa amaitzera: Jakaren ezker bolea, bien dejada azkarrak txokoan, sakeak, ezker zeharrak... 21 eta 19 jartzeko ezker zehar bikaina jo zuen Elezkano II.ak, eta Jakak tupust bere kontra, baina gorria geldi zegoen. Epaileek buelta eman zuten, ez zuten asmatu. Jakak 21 eta 22 irabazi zuen.

**Aitor Mendizabal** > Pilotaria

## "Ez dut sakea aprobetxatzen asmatu, eta merezita irabazi dit"

**J.I.** > ELGETA

**Finaletan egoten nahikoa ohitua behar du honezkero Aitor Mendizabalek. Oraingoan, baina, bererik erakutsi gabe eman du amore.**



J.A.

**Pena handia izango duzu.**

Ez dut nire maila eman. Berak agindu du partidu denean eta ez naiz eroso ibili. Ez zitzaidan pilota eskuan sartzen; sakea aprobetxatzea ere nahi nuen, baina ez dut pilota baztertzen asmatu. Merezita irabazi dit.

**Sakean asmatu barik, aireko aukera gutxi izan dituzu, eta edukitakoetan ez zara finegi ibili.**

Ez dut gehiegi asmatu, ez. Zorterik ere ez dut izan. Bizpahiru pilota txapara joan zaizkit. Bera, ostera, ondo iristen zen pilotetara.

**Eta zaleei buruz zer esan.**

Ikaragarria izan da, hainbeste jende eta hainbeste animu. Galdu arren, eurendako da dena. Asko eskertzen da horrelako zaleak edukitzea.

**Txapelketa ona egin duzu, txapelik irabazi ez arren.**

Gustura geratu naiz egindakoarekin. Errematatzea falta izan zait, baina honaino iristea ez da gutxi.

**Datorren urtean hemen izango zara berriz?**

Bai. Berriro egingo ditugu irabazteko ahaleginak. Ea hurrengoan txapela irabazterik dudan.

TOURREKO PORRAK > LOKATZA TALDEA ETA MONTE TABERNA

# Apustuek gora egin dute eta interesa dutenek saretik jarraitu ahalko dute jokoa

Bi porrak baturik, 1.500 apustu baino gehiago jaso dituzte; gaur, hirugarren etaparekin, hasiko dira biak jokoan

JON BEREZIBAR > BERGARA

Aurtengo Frantziako Tourrak etapa bi besterik egin ez baditu ere errekorrez hitz egiten hasteko moduan gaude. Txirrindulariek markarik hautsi ez badute ere gureko jarraitzaileek bai, iazkoarekin konparatuz apustu kopurua hazi delako. Arrasateko Monte tabernako porrari dagokionez, aurten berriz ere errekorra gainditu dute 1.072 apusturekin. 30 euroko apustuak dira eta irabazleak bildutako diruaren %40 poltsikoratuko du, eta hurrengo 10ek ere saria eskuratuko dute. Internet bidez (*www.amasg.com/xantini*) parte hartzeko aukera egon da aurten ere eta horrek Arrasateko tabernaren kasuan kanpoko jokalariak erakarri ditu, Madrilgoak, edota urrunagokoak, Txekiar Errepublikakoak. 1.072 partehartzaileetatik 220k eman dute izena saretik.



Zapatuan Martin Iralan ipini zuten mahaia Lokatzakoek. J.B.

**LOKATZA TALDEAREN PORRA**

Bergaran ere interesez eta apustuak eginez jarraituko dute Tourra. Lokatza txirrindularitza taldeak antolaturikoan 450 lagunek baino gehiagok hartu dute parte. Kasu horretan jokoaz gain, elkarteari laguntzatxoa ematea ere badago tartean eta aurten ere jende asko animatu zaiela diote antolakuntzakoek. 20 euroko apustuak dira Lokatzaren porraren kasuan eta horretan ere internet bitartez egin ahal izango da jarraipen osoa *goiena.net/blogak/lokatza* eta *nahikari.com* helbideetan.



GOIENKARIA

## Iker Eskibel bigarren Gueñesen

Ekainaren 26an Gueñesen egindako BTT txirrindularitza lasterketan bigarren, Kadete mailan, geratu zen Iker Eskibel (irudian ezkerretara, berdez). Hain zuzen ere, Euskadiko Txirrindularitza Federazioko BTT denboraldi bikaineko beste sailkapen aparteko bat izan zen joan den zapatuko azken hori. Horrez gain, nabarmentzekoa da lehen hiru postuetatik kanpo behin bakarrik geratu dela LIzarralde Kirolakeko Iker Eskibel denboraldi honetan, eta markarik onena Bastidako lasterketan egin zuen txirrindulari gazteak.

RENAULT

San Andres auzoa 8 ARRASATE
943 71 24 72

AUTOBERRI



IZENA ABIZENA > HERRIA
Xxxxxxxxx.
Xxxxxxxxxxxx.
TARTEKIA
Xxxxxxx.
Xxxxxxxx.

www.renault.es/concesion/autoberri



Espace 17.000 €
Motorea: 1.9 dci
Urtea: 2004
Kilometroak: 100.000



Megane Sedan Confort Expresion 17.000 €
Motorea: 1.5 cc 105 zp
Urtea: 2007
Kilometroak: 6.000



Megane Confort Expresion 12.000 €
Motorea: 1.5 cc 105 zp
Urtea: 2007
Kilometroak: 6.000



Grand Espace 26.900 €
Motorea: 2.0 150 zp
Urtea: 2007
Kilometroak: 9.500

| Modeloa | Km | DATA | PREZIOA |
|---|---|---|---|
| CLIO III | | | |
| CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 ZP 5 ate | 21.100 | 2006 | 11.500,00 € |
| Clio III EMOTION 1.5 85 ZP 5 ate | 15.000 | 2008 | 11.900,00 € |
| Clio III EMOTION 1.5 85 ZP 5 ate | 6.572 | 2008 | 12.500,00 € |
| CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 ZP 5 ate | 9.800 | 2007 | 12.500,00 € |
| CLIOIII PAC DYN 1.5DCI 85 ZP 3 ate | 10.000 | 2007 | 13.000,00 € |
| CLIOIII CON DY 1.5DCI 105 ZP 3 ate | 100 | 2007 | 14.250,00 € |
| ESPACE IV | | | |
| ESPACE 1.9 DCI EXPRESSION 5 ate | 110.000 | 2005 | 17.000,00 € |
| ESPACE N EXPRESSION 2.2 DCI 16 V | 84.375 | 2006 | 18.500,00 € |
| ESPACE 1.9DCI EXPRESSION 120 ZP | 27.500 | 2006 | 19.500,00 € |
| GRAN ESPACE EMOTION | 9.500 | 2007 | 26.900,00 € |
| KANGOO | | | |
| KANGOO COMBI 4X4 1.6 16 V 95 ZP | 18.000 | 2007 | 13.000,00 € |
| KANGOO Furgón Confort 1.5 DCI | 122.000 | 2007 | 7.500,00 € |
| KOLEOS | | | |
| KOLEOS DY PK2 2.0 DCI 150 ZP 4X2 | 19.850 | 2008 | 24.900,00 € |
| LAGUNA II | | | |
| LAG2 EX 1,9 DCI | 150.000 | 2001 | 5.500,00 € |
| LAGUNA II PRI 1.9 DCI 130 ZP | 105.000 | 2004 | 10.300,00 € |
| LAGUNA G.T.1.9DCI Con.Dyn.120 5 ate | 117.586 | 2005 | 11.500,00 € |
| LAGUNA II CON EXP 1.9 DCI 130 C | 25.100 | 2006 | 12.800,00 € |
| LAGUNA FAM II EXP 1.9 DCI 120 ZP | 65.700 | 2006 | 14.500,00 € |
| LAGUNA III | | | |
| N. LAGUNA III DYN 2.0 DCI 150 ZP | 10.500 | 2007 | 24.500,00 € |

| Modeloa | Km | DATA | PREZIOA |
|---|---|---|---|
| MASTER | | | |
| MASTER FURGON 3500 LAR SOB 2.5DC | 164.500 | 2006 | 12.000,00 € |
| MASTER FURGON 35 LS 2.5 D | 174.218 | 2006 | 12.500,00 € |
| MEGANE II | | | |
| MEGANE II Dynamic 1.5 DCI 85 ZP | 22.699 | 2008 | 12.000,00 € |
| MEGANE II Privilege 1.9 DCI 130 ZP | 27.124 | 2007 | 13.500,00 € |
| MEGANE 1.5dCi C.Expres. eco2 5 ate | 23.300 | 2007 | 11.500,00 € |
| MEGANE II 5P CONFORT DYNAMIQUE 1 | 22.500 | 2008 | 13.300,00 € |
| MEGANE II 5P DYNAMIQUE 15DCI 85C | 19.200 | 2008 | 13.500,00 € |
| MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 3 ate | 16.954 | 2006 | 13.500,00 € |
| MEGANE II CON EX 1.5DCI 105 3 ate | 100 | 2008 | 14.000,00 € |
| MEGANEII 1.5 D DYNAMIQUE 5 ate | 6.000 | 2008 | 14.300,00 € |
| MEGANE II CON DY 1.5DCI 105 5 ate | 7.000 | 2007 | 15.200,00 € |
| MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 5 ate | 100 | 2008 | 16.000,00 € |
| MEGANE III | | | |
| Nuevo Megane Berlina Expression | KM0 | 2008 | 15.900,00 € |
| Nuevo Megane Berlina Expression | KM0 | 2009 | 16.000,00 € |
| Nuevo Megane Berlina Dynamique d | KM0 | 2008 | 18.000,00 € |
| MEGANE SEDAN | | | |
| MEGANE II SEDAN | 6.000 | 2007 | 11.000,00 € |
| MEGANE SEDAN II | 10.500 | 2.007 | 11.000,00 € |
| SCENIC | | | |
| SCENIC II CON EXP 2.0DCI 150 ZP | 150 | 2007 | 17.000,00 € |
| GRAN SCENIC II 7PL | 12.547 | 2007 | 17.500,00 € |
| BESTE MARKAK | | | |
| PT Cruiser 2.0 16 V Touring 5 ate | 40.500 | 2002 | 8.300,00 € |
| León 1.9 TDI Sport 5P | 138.000 | 2004 | 9.900,00 € |
| Astra 1.9 CDTi Cosmo 5 ate | 76.593 | 2005 | 11.500,00 € |

**bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran**
kontsultatu gure motore eta ekipamendu aukerak.
Unitate mugatuak. Finantziazio aukera zabalak. Galdetu lasai.

Bonua aurkeztu

**%10EKO DESKONTUA TAILERREAN**
Promozioa 2009ko irailaren 30ean bukatuko da.
Auto bakoitzeko bono bat. Deskontu ez metagarria beste promozio batzuetarako.

Bonua aurkeztu




**FINALISTAK** Santana River eta Ahal Duhu taldeetako jokalariak finalerako gertu; txapelketan jokatu zuten zazpigarren partidua izan zen. IRATI AGIRREAZALDEGI




**NESKAK** Txapelketan nesken talde bakarrak hartu zuen parte. J.A.



**JOKOAN** Ahal Duhuko jokalaria atakean baloiarekin Aitor Marauri txapelketako jokalari onenarekin parez pare. J.A.

**ARETO FUTBOLA** > 24 ORDUKO SAN MARTZIAL TXAPELKETA

# Santana River taldea txapeldun, Ahal Duhuren aurkako final lehiatuaren ostean

Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua penaltietan irabazi zuen Indargorrik

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA
Frontoia areto futboleko kantxa bihurtu eta 24 orduz Bergarako 13 taldek jokoan jardun zuten asteburuan, tartean nesken taldė batek ere. Jokalariak gogotsu, eta frontoian giro oso ona; arratsaldez eta gauez jende dezente, azken partiduetan batez ere.

**FINAL LAURDENETAN ZORTZI TALDE**
Hiru multzotan banatu eta kanporaketa partiduak jokatu ostean, zortzi taldek egin zuten aurrera. Final laurdenetan Santana Riverrek Komando Piperrak taldearen aurka irabazi zuen (9-3); Indargorrik Irishen kontra (4-2); Ahal Duhu nagusitu zen The Purple-en kontrako partiduan (6-3); eta Arranoren eta Ez Dakiuren artekoa hasieratik apurtu eta Arrano izan zen irabazle (11-2).

Finalerdietan Indargorrik eta Santana Riverrek nahiko berdinduta jardun zuten amaierara arte, eta Santana Riverrek irabazi zuen (2-0); Ahal Duhuk 6-4 irabazi zuen Arranoren kontra.

Txapelketa amaituta, Jose Luis Beitia antolatzailea pozik zen sortutako giroarekin eta joko mailarekin: "Partidu gehienak lehiatuak izan ziren. Talde bat jokalariz justu xamar etorri zen eta hasieratik apurtu zen partidua; eta final laurdenetan ere, partidu batean, bost eta hutseko abantaila hartu du talde batek hasieran eta besteek etsi egin dute. Gainontzean partiduak nahiko berdinduta joan dira".

Finalistek atseden hartzeko hirugarren eta laugarren postuak izan ziren jokoan eta partidu lehiatuaren ondoren penalti bidez erabaki zen emaitza: Indargorri hirugarren eta Arrano laugarren.

**BERDINKETAK FINALEAN**
Finalean Santana Riverrekoak hasieratik aurreratu ziren markagailuan 3 eta 0 jarriz. Ahal Duhukoak gerturatu zitzaizkien bi gol sartuta, baina berriz ere Santanakoek beste bi gol sartu zituzten; eta lehen zatia 5-2 amaitu zuten aurretik. Bigarren zatian Ahal Duhukoek bosnako berdinketa lortu eta markagailuan aurreratu ere egin ziren (5-6). Santanakoek seinako berdinketaren ostean, beste hiru gol sartu zituzten partidua 9-6 irabaziz. Aipatzekoa Aitor Maururik, txapelketako jokalari onenak buruz sartu zuen gola txapelketari amaiera ederra emanez.

## Sariak

**LEHEN SAILKATUAK**

1. Santana River
2. Ahal Duhu
3. Indargorri
4. Arrano

**JOKALARI ONENA:**

Aitor Marauri

**JOKALARI BETERANOENA:**

Jose Gmez Pescador 'Pesca'

**JOKALARI BETERANOENA:**

Nesken taldea

**XXXI. DORLETAKO AMA SARIKETA** > EUSKALDUN TXAPELKETA

# Yelco Gomez panamarrak borobildu zuen Caja Ruralen lana

Nafarrek gogotik egin zuten lan Kurtzetan behera euren ordezkaririk gabe sortu zen taldea harrapatu eta azken maldan kolpea jotzeko



Taldeak egindako lana ondo aprobetxatu zuen Yelco Gomezek; argazkiko unean hainbat taldekid

**JULEN IRIONDO** > LEINTZ GATZAGA

Caja Ruraleko txirrindulariek fin egin zuten lan, azken kilometroetan lasterketa eurei komeni zitzaien moduan edukitzeko. Ihesaldi ahalegin gehienetan sartu zituzten txirrindulariak, horrela izan ez zenean gogor egin zuten tira aurrekoak harrapatzeko, eta azken kilometroetan, lasterketa jokoan zegoenean, bi lagun sartu zituzten aurreko taldean, taktikoki ihesaldiko beste kideek baino aukera gehiago izatea ahalbidetuz. Taktikaren beharrik ez zuten, dena den, izan. Leintz Gatzagarako azken igoerako lehenengo maldak hasi orduko jotako erasoan inork ez baitzion Yelco Gomezi jarraitu.

**HASIERATIK ERASOAK**

Domeka goizeko 10:00etan zuten irteera ordua 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulariek. Kirolerako tenperatura atsegina, baina lanbroa tarteka; jaitsieretan kontuz ibili behar beraz.

109 txirrindularik ekin zioten lanari. Aurreneko kilometroak maldan behera, Arrasateko autobideko sarrerako biribilguneraino. Ohi bezala, bizi hasi zen lasterketa. Lehenengo kilometroetatik izan ziren ihesaldi ahaleginak, bata bestearen atzetik. Gatzagako mendatearen aurreneko igoeran sortu zen aurreneko taldetxo serioa. Hamabost txirrindulari zeuden bertan, eta sei ziren Caja Ruralekoak. Legutiora bidean beste zazpi batu zitzaizkien, talde nafarreko beste batekin: "Zuzendariak esan digu ihesaldietan gure taldekoak gehiengoa izatea nahi zuela, eta horretan saiatu gara", zioen amaieran Yelco Gomezek. 22 lagun hauek ez zuten, dena den, alde handirik hartzerik lortu. Kurtzetako gainean hogei segundo baino ez zituzten.

Aramaiorako jaitsieran bitan zatitu zen aurreko taldea. Zorua bustia zegoen, eta Caja Ruraleko kide denak atzeko taldean geratu ziren: "Kurtzetako jaitsieran ez gara ondo aritu. Gure taldearen bertute handiena ez da jaitsieretarako trebetasuna", onartzen zuen Gomezek. Eskoriatzara bitarteko kilometroetan taldekako erlojupekoa bailitzan egin zuten tira orlegiek, aurrekoak harrapatu guran.

Gatzagarako bigarren igoera hasi baino lehen egin zuten bat bi taldeek, eta arnasarik hartzeko astirik gabe beste bi lagunek egin zuten aurrera: Caja Ruraleko Adrian Saez de Arregik eta Bidelaneko Carlos Delgadok. Diferentziak ez ziren larregikoak, eta Arlabanen behera handitu egin zen aurreko taldea: bosteko taldean hiru Caja Rural, Baqueko txirrindulari bat eta Bidelaneko beste bat zeuden; jaitsieran hauei aurrea hartuta Pello Bilbao, Naturgasekoa. Caja Ruralekoak asko zirela ikusita, jaitsieran gehixeago arriskatu eta proba egitea erabaki zuen Bilbaok. Aretxabaletarako harrapatu zuten. Epeleko biribilgunera iristerako, berriz, tropelak irentsiak zituen aurreko guztiak.

**KILOMETRO ERABAKIGARRIAK**

Arrasatetik gora hasi zen guztia erabakitzen. Orduan sortu zen eguneko ihesaldi ona, lasterketa azken 17 kilometroetan zenean. Sei txirrindularik egin zuten aurrera: Caja Ruraleko Yelco Gomezek eta Ruben Garciak, Naturgaseko Jon Aberasturik, Belcako Aitor Ocamposek, Bidelaneko Gorka Olaizolak eta Lizarteko Josue Gonzalezek.

Primeran ulertu zuten elkar sei txirrindulariek. Egin beharrekoa argia zen: gogor eman aldapa hasi arte, lasterketa euren artean jokatu ahal izateko modu-ko diferentziarekin iristeko mendate oinera. Erreleboetan hutsik egin gabe aritu ziren seiak.

Marulandan gora Caja Rura-lek zuen panorama onena: bi lagun zituen seiko taldean, eta argi zegoen zertara jokatuko zuten; aurrena erasoa batek, gero besteak. Baina ez zen beharrik izan. Lehenengo aldapan jo zuen erasoa Yelco Gomezek, eta inork ez zion jarraitu.

**58 TXIRRINDULARI HELMUGAN**

Handik helmugara bitarteko lanak bakarka egin zituen panamarrak. Eta Leintz Gatzagako helmugan bera lehenengoa, ordu-

---

**Yelco Gomez** > Irabazlea

## "Txirrindularitzan gora egin nahi dut, ikasketak utzi gabe"

**J.I.** > LEINTZ GATZAGA

**Panamatik etorrita, hiru hilabete daramatza 20 urteko mutilak Euskal Herrian. Ez doakio gaizki.**

**Lasterketa bikaina egin duzue.**

Hasi aurretik ez nuen nire burua irabazle ikusten, baina hala gertatu da. Taldea oso ondo ari da lan egiten azken lasterketetan, eta emaitzak ari dira iristen.

**Gaurkoa goian amaitzen zen. Igotzailea al zara?**

Ari naiz saiatzen beste batzuen mailara iristeko, baina apur bat kostatzen zait. Panaman ez dira horrelako lasterketak egiten: han aldapa bat egoten da asko jota, eta lasterketak lauagoak dira, zirkuitu gehiago... Han ez dira portuak bata bestearen ondoren egoten. Egokitu nahian nabil.

**Noiztik eta nolatan ari zara Euskal Herrian korritzen?**

Apirilean iritsi nintzen. Panamako nire babesleen ekimena izan zen. Euren bitartez hartu ninduten Caja Rural taldean. Harrera bikaina egin didate Euskal Herrian. Ni dena ematen ari naiz, nahi nuke aurrera egitea, taldearen izena goian jartzea, eta ea horrela datorren urtean ere etortzerik dudan. Lehenengo panamarra naiz Europan korritzen. Aspaldiko helburua nuen, eta pozgarria da niretako lortu izana.

**Ondo egokitu zara Euskal Herrira?**

Hasieran igarri nuen apur bat klimaren aldaketa. Hotza ez dut ondo eramaten. Iritsi eta lasterrera pulmonia txiki bat izan nuen, eta dezente kostatu zitzaidan errekuperatzea. Arabako itzulian eta Bidasoan ez nintzen egon horregatik.

**Ze emaitza izan dituzu orain arte?**

Birritan egin dut bigarren, Bergaran eta Andrakan. Gaur ezustekoa eman dut Leintz Gatzagan irabazita, eta pozik nago horregatik.

**Eta aurrerantzean, zer?**

Abuztuan itzuliko naiz Panamara, eta ingeniaritza ikasketei heldu nahi diet berriro. Baina txirrindularitzan ere gora egin nahi dut.




JULEN IRIONDO




de zituen aurretik Panamakoak –lehena eskuinetik–. JOSETXO ARANTZABAL

ko 41'77 kilometroko bataz besteko abiadurarekin. Atzetik, berarekin ihes eginda ibili ziren beste bost lagunak, eta urruti barik gainerako txirrindulariak, banan banan, 58ra arte. 51k utzi zuten bertan behera lasterketa.

Ukatu ezinezkoa izan zen Caja Rural taldearen nagusigoa Dorletako Ama sariketan: sailkapeneko lehenengo eta hirugarren postuak eskuratzeaz gain, mendiko saria ere talde bereko Adrian Saez de Arregi araiarrak irabazi zuen. Eta nola ez, taldekako sailkapena ere Caja Ruralentzat izan zen. Gatzagakoa lehen garaipena izan da Yelco Gomezentzat.



Yelco Gomez, Leintz Gatzagako helmugan sartzen. J.I.



Hainbat ihesaldi ahalegin izan ziren lasterketan lehenengo kilometroetatik. J.I.

## XXXI. Dorletako Ama sariketa

**LASTERKETAKO SAILKAPENA**

| | |
|---|---|
| 1. Yelco Gomez (C. Rural) | 2:43:46 |
| 2. Jon Aberasturi (Naturgas) | 7ra |
| 3. Ruben Garcia (C. Rural) | 10era |
| 4. Aitor Ocampos (Belca) | 14ra |
| 5. Gorka Olaizola (Bidelan) | 20ra |
| 6. Josue Gonzalez (Lizarte) | 26ra |
| 7. Carlos Juez (Baque) | 32ra |
| 8. Victor de la Parte (C. Rural) | 37ra |
| 9. Pello Bilbao (Naturgas) | 43ra |
| 10. Ugaitz Artola (Bidelan) | 57ra |




Adrian Saez de Arregi, mendiko sariko irabazlea. J.I.

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta

eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95

**SASKIBALOIA** > II. SORALUCE S.COOP. 3X3 SASKIBALOI TROFEOA

# Parte-hartze kopuruak gora eta giroa bermatuta zapatuan

40 talde baino gehiagok izena emanda, astean zehar argitaratuko dituzte zerrendak eta ordutegiak. Zapatu goizean hasiko dira




Iazko txapelketako une bat GOIENKARIA

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Atzo bertan itxi zuten izenematea eta 40 talde baino gehiagok hartuko dute parte aurten txapelketan, maila guztiak kontuan hartuta. Datorren asteburuan, zapatuan eta domekan, jokatuko dira partidu guztiak San Martin plazan, eguraldi ona eginez gero.

Aurreko urtean 176 lagunek esku hartu zuen eta iaz baino talde gehiagok eman du aurten izena. Horregatik, iazko arrakasta atzera ere lortzea izango da aurtengo asmoetako bat. Senior mailan 19k eman dute izena eta elite mailan hiruk. Bi maila horietan 500 euroko saria jasoko dute irabazleek.

Koadrilen arteko partiduak ere egongo dira eta haien saria Lasa jatetxean bazkaria izango da. Junior mailan 200 eurokoa izango da saria; kadete mailan 100 euro eta infantil zein alebinetan 50na euro. Sari berezi bat ere egongo da "talderik jatorrenari" emango diotena.

**PARTIDUAK ASTEBURUAN**

Zapatu arratsaldean eta domekan izango dira hirunako partiduak. Izenematea dagoeneko itxita, astean zehar ordutegiak atondu eta argitaratu egingo dituzte antoltzaileek. Horretarako, *bergara3x3.blogspot.com* bloga erabiliko dute. Jokatzeko moduari dagokionez, aurten ere ligaxka erara antolatuko dituzte neurketa guztiak eta hasierako asmoa plazan bertan jokatzea bada ere, eguraldiak, iaz gertatu bezala, planak aldarazi ditzake.




GOIENKARIA

## Antzuolako talde batek parte hartuko du Donosti-Cup txapelketan

Gaur hasiko da lehiaketa eta 15 laguneko taldea joango da Antzuolatik Donostiara jokatzera *Antzuola* izenarekin. Jokalari guztiak herrikoak dira hiru kenduta.

Lehen fasea gaurtik eguaztenera bitartean jokatuko dute. Antzuolarrek sailkatzea lortzen badute, egubakoitzera bitartean jokatu beharko dute bigarren fasea eta azken egunean izango da finala. Horren aurretik eta lehen fasean, Real Tanger, Lotura eta Easo Sport taldeen aurka jokatu beharko dute Antzuolako mutilek.

**FUTBOLA** > IPINTZAKO TXAPELKETA

# Finalerdiekin hasiko dira gaur

Gaur arratsaldean 19:30ean Amaikak eta La Juvek jokatuko dute; Kopako finalerdiak 18:00etan jokatuko dira

**J.B.** > BERGARA

Gaur eta bihar jokatuko dituzte futbol 11ko finalerdiak. Amaika, La Juve, Txokokuak eta Santana River dira Ipintzako finalerdietarako sailkatu diren taldeak. Partiduak 19:30etan izango dira eta gaur Amaika eta La Juvek jokatuko dute. Biharkoa Txokokuak ea Santana Riverrena izango da.

Ipintzako txapelketako finalerdiez gain, gaur eta bihar ere jokatuko dira Kopako finalerdiak. Goizago izango dira horiek, 18:00etan.

**BETERANOAK ETA NESKAK**

Eguenean jokatu zituzten beteranoek finalerdiak eta, behin fase hori gaindituta, oraingo eguenean jokatuko dute finala. Nesken txanda etzi etorriko da finalerdiekin baita ere, 19:00etan.

**LA JUVEKOAK INDARTSU**

Gaur eta biharkoei dagokienez, aipatzekoa da La Juve egiten dabilen txapelketa, arerio gogorrak atzean lagata. Iazko txapeldun Getokuak, adibidez, aurten txapelketatik kanpo geratu dira, bai kopan zein ligan. Amaika taldearen aurka erakutsi beharko du La Juvek gaur orain arteko sasoia.



La Braña de los Tejosen, joandako domekan. POL-POL

**MENDIZALETASUNA** > BESIDE ETA POL-POL TALDEAK

# Irteerak bizikletaz zein oinez, Besaiderekin

Gaur irekiko da Toloñora joateko irteerarako izena emateko epea, eguztenera arte

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Uztailerako hitzorduak ere gertu dauzkate Arrasateko Besaide Mendizale Elkartekoek. Lehen irteera datorren domekan egingo dute Toloño aldera (Herrera-Toloño-Bastida), egun osorako. Irteera horretara izena emateko epea gaur hasi eta eguaztenera bitartekoa izango da Besaideren bulegoetan (19:30-20:30). Hileko bigarren irteera uztailaren 25ean izango da, zapatua. Mendi-bizikleta irteera izango da kasu honetan eta Araotzeko kanaletatik egingo dute ibilbidea. Hitzordua ere ipini dute, Garibain 09:00etan. Bai harremanetarako zein izena emateko *besaidemtb@hotmail.com* posta helbidea ipini dute eskura.

**POL-POLEKOAK KANTABRIAN**

Bergarako mendizaleei dagokienez, Pol-Pol taldeko beteranoak joandako asteburuan Potes aldean egon dira, Europako Mendietan. 32 lagunek pasatu zuten asteburua Kantabria aldean.

Hain zuzen ere, zapatuan Puerto San Glorio (1.600m)-Peña Prieta (2.500m)-Dobres (900m) zeharkaldia egin zuten, bederatzi orduko martxa, "luzea baina giro ederrarekin" egina. Domekan, berriz, laburragoa izan zen ibilbidea: San Pedro de Bedoya - Lebeña herri arteko martxa, hori ere aitaturiko Potes inguruan. Argazkia, hain justu ere, domekako martxakoa da, La Braña de los Tejos parajean, Lebeña bidean.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Argider Isasti > Korrikalaria eta txirrindularia

# "Bizikletan ondo ibili eta orientatu beharra dago 'Pedals de Foc'en"

**Argider Isasti oñatiarrak joan den aste bukaeran Vielhan jokatutako Pedals de Foc mendi bizikleta lasterketa irabazi zuen; eta, gainera, errekorra egin zuen. Triatloiak egiten ikusi izan dugu askotan, baina, mokorrean duen lesio bategatik antxintxika egiteari utzi dio azkenaldian. Garaipena Izar alaba jaioberriari eskaini zion.**



Argider Isasti bizikletarekin. A.EZKIBEL

**Zorionak, Argider!**

Eskerrik asko.

**Nolako lasterketa da Pedals de Foc?**

Pedals de Foc norberak bere kabuz egiten duen zirkuitu bat da. Mendi-aterpe batetik beste batera egiten diren lasterketak dira, baina norberak bere kabuz. Carros de Foc mendi ibilaldiaren berdina dela esan daiteke; ikusi zuten arrakasta izan zuela mendi ibilaldiak, eta mendi bizikletara egokitzea erabaki zuten.

Urtean behin lasterketa egiten dute: 230 kilometro eta 6.000 metroko gora-behera duena. Aukera dago dena jarraian egin edo bi etapatan egiteko.

**Eta zuk bi etapatan egitea erabaki zenuen?**

Bai, nik bi etapatan egin nuen lasterketa. Lehengo egunean 150 kilometro eta bigarrenean 80.

Hasiera batean egun baten egiteko lasterketan izena eman gura nuen; baina kontua da emaztea haurdun zegoela, eta ez nekiela zenbat denbora izango nuen entrenatzeko. Izan ere, 230 kilometroko lasterketa bat egiteko asko entrenatu behar da, eta nik ez dut izan behar beste denbora. Hortaz, bi egunetakoan eman nuen izena.

**Teknikoki zelako lasterketa da?**

Vall d'Aran inguruan egiten den lasterketa da, hortaz oso menditsua. Kontuan hartu 6.000 metroko gora-behera positiboa duela. Denbora guztian gora eta behera zabiltza, haran ezberdinak zeharkatuz.

Bestalde, esan behar da inguruak ikusgarriak direla, oso politak. Utzita dauden herri txikiak zeharkatzen dira... Turistikoki ere ikusteko leku politak diren tokiak dira.

**Parte hartu duzun lehenengo aldia izanda, uste zenuen horrelako emaitza lortzea?**

Ez, ezta pentsatu ere. Gainera, lasterketa baino hiru aste lehenago ez nekien joateko moduan izango nintzen.

Eguna iritsi zenean, baina, konturatu nintzen inoiz baino gorputzaldi hobean nengoela. Aurten beste urte batzuetan izan dudan presio barik entrenatu dut, lasai ibili naiz. Bizikletan ondo moldatuko nintzela banekien, baina ez nuen espero irabaztea.

**Gainera, Pedals de Foc lasterketak beste zailtasun bat du: orientazioa.**

Bai, hori da. Bizikletan ondo ibiltzeaz gain, norbera orientatu behar da. Ibilbidea ez dago markatuta. Lasterketa hasieran eurek *road book* deitzen dioten mapa bat ematen dizute eta zuk egin behar duzu bidea, han jartzen dizuten argibideekin.

Hortaz, beste urte batzuetan lasterketa egin izan dutenek edo ingurukoak direnek gutxi gora behera ezagutzen dute ibilbidea, baina niretako guztiz berria zen. Parte hartzaileek dena buruz egin ez dezaten, lasterketa egunean kontrol sorpresak sartzen dituzte.

> **"Lehenengo egunean irabazi ostean, bigarren etapa oso gogorra izan zen; aurkariak tiraka nituen eta nik eutsi egin behar nuela argi nuen"**

**Zapatuko proba irabazi egin zenuen, eta domekan emaitza eustera joan zinen.**

Zapatuko lasterketa irabazi egin nuen eta domekan lau batera iritsi ginen helmugara. Lauetatik hiru sailkapenen orokorrean lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena ginen. Laugarrenak esan zigun izugarrizko ilusioa egiten ziola lasterketa irabaztea, hortaz utzi egin genion.

**Domekan gogor egin behar izan zenuen lan, emaitza eusteko?**

> **"Aurten ez dut korrika eta igeri egin, bizikletan bakarrik ibili naiz; uste nuen inoiz baino gutxiago ibili naizela baina ez da horrela izan"**

Behin zapatuko lasterketa irabazita, ikusi nuen lasterketa orokorra irabazteko aukera bazegoela. Gertatzen dena da ez nekiela zenbat denbora ateratzen nien bigarren eta hirugarren sailkatuei.

Domekan, nire asmoa aurrean joango ziren lasterkariekin joatea zen. Gertatzen dena da, bigarrenak eta hirugarrenak guztiz bestelako plana zutela: niri ahalik eta denbora gehien ateratzea. Hasieratik oso indartsu atera ziren, ihesaldi ahaleginak eginez. Nik ahal nuen bezala jarraitzen nien, baina oso gogorra izan zen.

**Zer izan zen lasterketako gogorrena zure ustez?**

Lehenengo eguna. 100. kilometrotik aurrera oso gogorra egin zitzaidan. Ni ohituta nago 3-4 orduko bueltak ematen, eta lasterketako lehenengo eguna bederatzi ordukoa izan zen. Hortaz, azkeneko 30 kilometroetan faktura pasa zidan gorputzak.

Bestalde, bigarren etapa oso gogorra izan zen mentalki. Nik nire burua presionatuta ikusten nuen. Aurkariei eutsiz gero, lasterketa irabazteko aukera nuela ikusten nuen. Aurkariak, ostera, oso gogor atera ziren. Euren atzetik joan nintzen, eta lehenengo ordubetea oso gogorra egin zitzaidan.

**Orain arte, korrika eta triatloietan ibili izan zara. Noiz hartu duzu mendi bizikleta?**

Beti ibili izan naiz bizikletan, gertatzen dena da nire kabuz ibili izan naizela, ez dudala lasterketetan parte hartu izan.

Orain gertatzen dena da ezin dudala korrika egin, mokorrean lesio txiki bat daukat-eta. Hortaz, aurten bizikletan ibili naiz. Hasiera batean ez nuen uste lasterketetan parte hartzea, baina denbora aurrera joan ahala ikusi dut motibazio falta nuela; hortaz, lasterketa honen berri izan nuen eta polita iruditu zitzaidanez izena eman nuen. Hala, entrenatzeko motibazioa izan dut.

**Asko aldatzen da entrenatzeko modua korrika egin edo bizikletan ibili?**

Bai, asko aldatzen da. Korrika ezin duzu egunero egin, ez behintzat topeka, belaunek asko sufritzen dute-eta. Bizikletak, ostera, ordu gehiago egiteko aukera ematen dizu.

Bestalde, aurten bizikletan bakarrik ibili naiz –ez dut korrika egin eta igeri–, eta neukan sentsazioa inoiz baino gutxiago egin dudala. Hala ere, emaitzetan eta forman ikusi dut inoiz baino hobeto nagoela.

**Lasterketako sari banaketa, benetan polita izan zela diozu.**

Bai, Vielhako alkateak eman zituen sariak eta nik maillota jaso nuen. Ez nago ohituta sariak jasotzera, beti ikusi egiten dut; hortaz polita izan zen nik jasotzea.

**Eta nori eskaini ere izan duzu.**

Bai, hilabete lehenago jaio zen alaba eta hari eskaini diot.



Ume bat gustura lo, oheko maindire eta izarei helduta. SEAN DREILINGER

**UMEAREN LOA** > GURASOEN PAZIENTZIA NEURGAILUA

# Lo egiten 'irakatsi', edo pazientzia izaten ikasi

Guraso izatearen alde gogorrenetakoa gauak dira gure gizarteko aita-ama askorendako; beste kultura batzuetan, ez dakite zer den loaren arazoa

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Guraso askorendako guraso izatearen alde gogorrenetako bat gauak izaten dira. Eguneroko bizimodua ume txikien beharrekin bateratzea ez da erraza gaur egun eta guraso askok ez dute gogo onez onartzen etxeko txikiak behin baino gehiagotan esnatzea gauetan. Batzuek umeari lo egiten irakasteko metodo konduktistak erabiltzen dituzte eta beste batzuek hori horrela dela onartzen dute, pazientzia izan eta egunen baten gau osoan lo egingo dutela pentsatu.

Gurasoen kirioak dantzan jartzen direla eta pazientziaren muga askotan gertu egoten dela ahaztu gabe, Lide Azkuek, amatasunean adituak, umeak benetan lo nola egiten duen azaldu du *www.guraso.com* webgunean kaleratu duen artikulu baten.

**SASOI BAKOITZAK, BEREA**

"Lehen hiru hilabeteetan umeek ez dituzte eguna eta gaua bereizten. Helduon loak bost fase ditu eta umearenak bi: REM edo lo aktiboan, garunak garatzen jarraitzen dute, eta lo arina dute. Sasoi horretan 45 minutuko zikloetan egiten dute lo eta ziklo artean esnatu egiten dira", azaldu du Azkuek.

Lau eta zazpi hilabete artean, berriz, "eguna eta gaua bereizteko gai dira eta 10 eta 15 ordu bitartean egiten dute lo. 8 eta 36 hilabete artean, normala da amesgaiztoak izatea, eta ume gehienak esnatu egiten dira gauetan. 3 eta 6 urte bitarteko sasoian, aldiz, umeen loa helduonaren antzekoa bihurtzen da; eta 5 urte inguruan haur guztiak hasten dira gau guztian esnatu gabe lo egiten, nahiz eta oraindik gurasoak behar dituzten ondoan", zehaztu du Lide Azkuek.

**TRASTORNOA ETA ARAZOA**

Azkue adituaren ustez, bereiztu egin behar dira loaren trastornoa eta arazoa. "Trastornoak zerbaitek ondo funtzionatzen ez dueneán gertatzen dira, eta arazoak, berriz, funtzionamendua normala izan arren gurasoengan ondoeza eragiten duenean".

Lide Azkueren esanetan, kontuan izan behar da arazoa gurasoena dela, ez umearena. "Munduko kultura gehienetan, amek umeak soinean eramaten dituztenetan, ez dakite haurraren lo-arazoa zer den. Horiek, ordea, bularra berandu arte ematen diote umeari, amek umeekin egiten dute lo eta negarrari berehala erantzuteko jarrera dute. Gure gizartean, aldiz, hiru jarraibide horiek ez daude ondo ikusita gaur egun", iritzi dio *Guraso.com* webgunean amatasunari buruz idazten duen adítu, Lide Azkuek.

UMEEN LOA FASEKA

**> LEHEN HIRU HILABETEAK**
Ez dute eguna eta gaua bereizten.

**> 4-7 HILABETE ARTEAN**
Oso sarri esnatu ohi dira.

**> 8-36 HILABETE ARTEAN**
Amesgaiztoak izatea ohikoa da.

**>3-6 URTE ARTEAN**
5 urterekin gau osoa egiten dute.

**Larraitz Arando** > Sexologoa

## "Hemen ere izaten dira sexu-abusuak jasan dituzten umeen kasuak"

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

**Larraitz Arandok Arrasateko sexologia bulegoan egiten du lan eta sexu-abusua jasan duen umeen kasu bati baino gehiagori eskaini behar izan dio laguntza.**

**Gehiegikeria sexualak jasan dituzten umeen kasuak jasotzen badituzue bulegoan, gure artean ere gertatzen direla esan gura du horrek?**

Bai, tamalez toki guztietan gertatzen dira. Orain, nolabaiteko alarma soziala sortu da gai horren inguruan eta errazago kaleratzen dira. Hala ere, batzuek gura izaten dute gehiegikeria hori ahalik eta isilean pasatzea, inork atzamarrarekin ez seinalatzeko, hori lagungarria zaiolakoan bere bizitzan.

**Ze ondorio uzten ditu gertaera horrek ume batengan?**

Gehiegikeriak jasan duenaren etiketa kentzea ez zaio erraza izango. Bestalde, bere gorputzarekin eta beste pertsona batzuekin harremanak izatea zaildu egin dezake.

**Nola antzeman diezaiokegu ume bati sexu-abusua jasan duela?**

Ez da erraza izaten. Gogozkontrakoa izan bada, jarrera aldaketak izan ditzake umeak, baina oso adi egon behar du, zaila izaten da-eta antzematen.

**Zer egin, sexu-abusuak sufritu dituela jakin eta gero?**

Haren ondoan egon eta mezu baikorrak eman. Umeei ezezagunekin berba ez egiteko esaten diegu, baina sexu-abusu gehienak ezagutzen dituzten pertsonengandik jasaten dituzte.

**Nola landu gai hori, eurekin?**

Euren gorputza zaindu behar dutela esan bai, baina nola zaindu? Benetako adibideak jarri behar dizkiegu umeei: gehiegikeria jasatean gustura ez badaude, hori ez zaiela gustatzen esan behar dutela azaldu behar diegu, adibidez.

**Nora jo dezakegu horrelako egoera baten aurrean?**

Hainbat elkarte daude terapia bezalako laguntza eskaintzen dutenak. Horietako bat da AVISA. Dena dela, guregana ere etor daitezke laguntza eske. Gure telefonoa da: 943 25 20 66.

**"Jarrera aldaketak izan ditzake umeak, baina abusua jasan duela antzematea zaila da"**

**"Abusua gertatzen denean, umearen ondoan egon eta mezu baikorrak eman"**




Larraitz Arando, Arrasateko sexologia bulegoan. GOIENKARIA

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> SAN MARTZIALAK**
Sasoirik onenean eta eguraldi ederrarekin eutsi dio bergararren erromeria kuttunenak **> 30**



**> DORLETA BIBRAIXON**
Leintz Gatzagan swinga, reggaea, flamenkoa eta soula batu dituen jaialdia egin dute **> 31**



**> JUAN CARLOS IRIZAR**
Oñatiko piano jotzaileak The Beatles taldeari omenaldia egin dio azken diskoan **> 33**

**ARRASATE** > AL ANDALUS

# Errozioaren ospakizuna, gero eta jende gehiago batzen duen hitzordua

**AMA BIRJINA**
Andaluziako ohiturari jarraituta, Errozio jendetsua ospatzen dute Arrasaten

**ARRAKASTATSUA**
Euskal Herri osotik etortzen dira Andaluzian sustraiak dituztenak Arrasatera

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Atzo, domeka, Arrasateko irteera, Eroski parean, autoz josita zegoen eta alboko Arruena parkea jendez eta kolorez beteta. Are gehiago, Musakola auzoan mugimendu handia somatzen zen.

Horren guztiaren arrazoia Arrasateko Al Andalus elkarteak antolatzen duen Errozio erromeria zen, eta aurtengoa hemeretzigarrena izan da.

**EGUZKIAK AURRE HARTU**

Atzoko eguna busti eta ilun iratzartu zen, eta Al Andalus elkartekoak arduratuta egon ziren zerura begira. Zorionez, poliki-poliki eguzkia indarra hartzen joan eta euria alboratu zuen. Hala, bazkal ordurako eguzkiak gogor jotzen zuen Arruena parke jendetsuan.

Horren aurretik, baina, kanpotik etorritako Andaluziako etxeei harrera-gosaria egin zieten; eta horren ostean, Al Andaluseko abesbatzak *Agur Erregina Roziokoa* izeneko salbea abestu zuen. Horri lore eskaintzak jarraitu zion. Eta behin hori eginda, Andaluziako Errozioaren ohiturari jarraituta, ama birjina Musakolako elkartetik Santa Teresa elizara eraman zuten.

**ELIZA TXIKI, MEZA ABESTUAN**

Santa Teresa eliza txiki gelditu zen beste behin, meza abestua entzuteko. Kantuan egiteko ardura Al Andaluseko abesbatzak duen arren, aurten ere Andaluziako beste etxe batzuetako kideek ere abestu zuten, arrasatearrekin batera.



Errozioko ama birjina erromerian atera zuten atzo, domeka. IKER BARANDIARAN



Eguerditik iluntzera bitartean dantza eta dantza ibili ziren Arruenan. I.B.



Errozioari Al Andaluseko abesbatzak kantatu zion. JOSETXO ARANTZABAL

Are gehiago, elkarte bereko Sueños de Andalucia taldeak ere dantza erakustaldia egin zuen.

Elizatik irteterakoan, Lasartetik etorritako zaldiak zain zituzten, eta eurekin batera Arruena parkerako arteko ibilbidea egin zuten, gitarra flamenkoak, abeslariek eta dantzariek lagunduta.

**DEBOZIOA ETA JAKIN-MINA**

Ikustekoa da andaluziarren debozioa, eta behin baino gehiagotan ibilbidean gelditu eta ama birjinari abestu egin zioten. gainera, arrasatear asko batu ziren prozesioa ikusteko asmotan.

Arruenan jaiak luzerako jarraitu zuen. Janak, musikak eta debozioak jende asko erakarri zuen, eta pozik zeuden bertaratutakoak. Are gehiago, gero eta jende gehiago ikusi ohi da Erroziokо jantziak soinean dituztela, adin guztietakoak gainera.

**2010EAN, ARTZAIN JANTZITA**

**Debagoiena.** Ingeleseko eskolak emateko gertu nago, uda osoan zehar, maila guztietan. Amaia. 635-00 68 84

**Debagoiena.** Matematikan lizentziadunak udan eskola partikularrak emango lituzke. Alex. 653-70 89 17

**Debagoiena.** Arkitekturako ikaslea uda guztian zehar eskola partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. 666-87 18 52

**Debagoiena.** Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditut. 2. mailako Gizarte Integrazioko ikaslea prest laguntzak emateko. Esperientzia euskara hobetzeko klaseak ematen. 617-27 27 33 edo 943-53 38 19

**Eibar.** Lehen Hezkuntza duen eta Haur Hezkuntza ikasten ari den neska, klase partikularrak edo umeak zaintzeko prest. 659-70 93 34

**Oñati.** 21 urteko gaztea udan eskola partikularrak emateko prest. Ekainaren 18tik aurrera izan beharko luke. Ordutegiaren aldetik, malgutasuna. Deitu:685-71 74 12

**Oñati.** Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrak emango nituzke udan Oñatin. Harremanetarako deitu: 666-21 73 48

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi 80 2,0 I 5V salgai.** Audi 80 2,0 I 5V autoa salgai. SS 1707 AS matrikuladuna. Oso egoera onean. Kontxi. 943 76 18 95 edo 687 04 19 18

**Citroen Saxo salgai.** Citroen Saxo markako autoa saldu nahi dut. Egoera onean dago. 3.000 euroko prezioa. 626 47 41 53.

**Kawasaki Z750 salgai.** 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000km, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro.660-33 77 16.

### 602. EROSI

**125 cc-ko motorra** erosi nahi dut. Bigarren eskukoa eta merkea. Deitu 615 73 79 11 telefono zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 704. BESTELAKOAK

**Baserrirako** arratoi-txakurkumea hartuko nuke. Deitu 655 71 41 24 telefonora.

**Txakur emea galdu da Legazpin.** Ostiralean Legazpin 3 urteko cocker txakur emea galdu zen. Beltza da, bularrean arrasto txuria dauka. Sua izenez erantzuten du, nahiz eta izutia izan. Legazpi eta Gabiria bitartean egon daitekeen susmoa dugu. Topatzen duenak mesedez dei dezala 68557 68 36 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Argazki kamara digitala .** Pentax Optio S12 argazki kamara digitala. Estreinatzeko. 149 euro. Deitu: 679-85 75 06 (Bittor)

**BBK Live jaialdirako bonoak.** BBK Live jaialdirako lau bono dauzkat saltzeko. Bakoitza 100 eurotan. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 615-79 22 81

**Berogailu elektrikoa.** Berogailu elektrikoa salgai. 50 euro. 943-79 68 18

**Comanche Arizona karro denda salgai.** Karro denda Comanche Arizona, bi logela handi (bat jangela bilakatzeko aukerarekin). 850 euro. 635-20 77 80eta 635-20 77 80

**Erremolkea .** Txakurrak edo karga erabiltzeko erremolkea. Garajean gordea. Ez erabiltzeagatik saltzen da. Berri berria dago. Kajaren neurriak: 125x97x56 zm. 10 hazbeteko gurpilak. 400 kilo gehienez. Eskopetentzat bandeja. Bi ate mota. Separadorea. Ikustea merezi du. 595 euro. Telefonoa: 686-89 77 32

**Erremolkea edo atoia oso merke.** Neurriak: (1,00+2,63) mts. x 1,60 mts. x(0,50+1,20) mts. Galga, 4 gurpil, toldoa, kartolak gontzarekin 688-62 02 68 (Iñaki)

**Ezinduentzako garraio baliabideak.** Ezinduentzako Scooterra salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 €. Ezinduentzako gurpildun aulki elektrikoa salgai. 20 kilometroko autonomia. Urtebeteko garantia. 2.000 €. Harremanetarako telefono zenbakia: 605-771 607

**Hozkailua.** Komertziorako egokia. Kristaldun atearekin. 508 euro. 685-73 93 55

**Metallicaren kontzerturako 2 sarrera.** Metallica taldeak uztailaren 14an Madrilen emango duen kontzerturako bi sarrera dauzkat salgai. 648-01 32 45

**Piketeak salgai.** Interesatuek deitu 948-51 00 78 telefonora.

**Segadora.** Segadora hileradora, (biltzekoa) RAPID 505 salgi. Deitu: 943-16 08 60

**Taxi lizentzia salgai.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dut. 616-54 29 60.

### 802. EROSI

**Lursaila Oñatin.** Orturako lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. 662 04 14 98.

### 803. EMAN

**Marrazteko mahaia.** Marrazteko mahai bat ematen dut. Oihana. 616-84 55 96

### 804. HARTU

**Irratirako tresnak.** Arrasateko gaztetxean Itxungi irrati librea sortzen ari gara, eta norbaitek irrati bat sortzeko tresnak erabiltzen ez baditu, eskertuko genuke.

**Uretako kefirra hartuko nuke.** Uretako Kefirra hartuko nuke. Baldin badaukazu, deitu telefono honetara: 943 76 40 54

### 805. TRUKATU

**Saxo VTS.** 10 urte dituen Saxo VTS 90 autoa Berlingo edo Partner furgoneta bategatik aldatuko nuke. 663 72 78 23.

### 806. GALDU

**Betaurreko gorriak.** Graduatutako betaurreko gorriak galdu nituen Arrasate erdialdean. Zorro gorri baten barruan daude. 653-71 79 87

**Giltzak galdu ditut Arrasaten.** Plazatik anbulatoriora bitartean. Giltzek astotxo bat dute. 943-79 79 34

### 807. AURKITU

**BTT motxila.** BTT motxila, gauzekin, aurkitu genuen Arrasaten Okoretegiko errotondan, ekainaren 13an, zapatuan, gauean. Deitu telefono honetara: 616-93 81 69

**Giltzak.** Zubillagatik Urkulurako bidean bi giltzako jokoa aurkitu dut. Batek garajekoa ematen du. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:670-65 43 59

**Mugikorra Etxarri Aranatzen.** Epele dermioan Siemens telefono mugikorra opatu dute (urdina eta grisa).Galdu duenak jaso dezala Beleixe irratian (Etxarri Aranazen).

**Setter txakurra aurkitu dugu.** Bidegoianen. Jabeak deitu dezala: 652-718 751.

**Traktorearen buloia.** Etxarri Aranazko Eraga dermioan traktorearen buloia opatu da. Deitu 652-74 72 48ra (Juan)

**Zilarrezko erlojua.** Otsail bukaeran Gabiria dorrearen inguruan zilarrezko erlojua aurkitu nuen. 943-76 26 82

## 9/ HARREMANAK

### 902. HERREMANAK

**35-40 urteko neska.** Irundarra, 41 urte, 35-40 urte neska erakargarri bat ezagutuko nuke, ahal dela nire herritik ez oso urrun, ni kirolzale, bertsozale, onean fina, parrandazale neurrian, eta abar. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara:628 55 37 35. *antxon.u.b@hotmail.es.*

**Ehiza gustatzen zaion neska baten bila.** Irungo ehiztari banandua, 40 urtekoa, bilatzen du ehiza maite duen neska bat. Interesatuak deitu ezazu telefono honetara: 617 76 67 48 (gauez).

**Emakumea bikote bila.** Dibortziatutako emakumeak antzeko egoeran (dibortziatuta edo alarguna) dagoen 50 55 urte bitarteko gizonezko euskalduna ezagutuko nahiko luke. Hobe Urola bailarakoa bada eta seme-alabarik gabea, baina ez da beharrezkoa. Interesatuek deituezazue telefono honetara: 653 56 92 93 telefono zenbakira.

**Harremanak.** 43 urteko mutilak, baserrikoa, jatorra, langilea eta itxura onekoa, neska bat ezagutu nahiko luke. Interesatuek deitu 653 40 65 30 telefonora

**Neska bat ezagutu.** 35-40 urte bitarteko neska polit eta erakargarri bt ezagutukonuke aski gustora, norbaitek interesa balu deitu dezala edo idatz dezala nire korreora. 628 55 37 35. *antxon.u.b@hotmail.es.*

**Neska bila.** Donostiako 33 urteko mutil jator bat naiz eta neska bila nabil harremanetarako, ez dio axola adina. Animatu ondo pasako degu eta! *arminab76@gmail.com*

**Umeekin ekimenak euskaraz egiteko talde bila Uribe Kostan.** 4 urteko 2 mutikoen ama naiz eta talde euskalduna sortu nahi dugu Uribe Kostan, umeekin ekimenak euskaraz egiteko. Deitu ezazue telefono honetara: 680 74 59 60

KULTOUR BIDAIAK

Ez da talderik behar, 2 pertsona nahikoa dira.
**INDIA 14 egun:** 1.045 eurotik hasita + tasak
**NEPAL oinez 24 egun:** 1.620 eurotik hasita + tasak
**VIETNAM 17 egun:** 2.100 eurotik hasita + tasak
**UZBEKISTAN 14 egun:** 1.620 eurotik hasita + tasak
**PERU 14 egun:** 1.570 eurotik hasita + tasak
— — — — —
**PUNTA CANA/RIVIERA MAYA.** Uztaila 690 €-tik hasita.
**GANBIA.** Uztailak 3,10. 7 gau 550 eurotik hasita.
**ETXEAK TOSKANAN (Italia):** Astea 330 eurotik hasita
**ETXEAK ZUBEROAN:** 2 gau 130 eurotik hasita
**EUROPA BUSA + KANPINA:**
15 egun 280 eurotik hasita: Kroazia-Eslovenia, Italia, Herbehereak, Austria, Alpeak

943-29 70 25 • info@kultourbidaiak.com
www.kultourbidaiak.com

**Urola Kostako komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:**

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...) eragileekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabiltza.

Eskatzen da:

- Kudeaketa-administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskaraz ondo jakitea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, curriculuma bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, ekainaren 22a baino lehen.

Erreferentzia: UKHK209.

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 3 | 6 | | 5 |
| | | | 7 | | 5 | | 2 | |
| 4 | 6 | | | | 2 | | | |
| 2 | | | | 7 | | 9 | 5 | 6 |
| 5 | 3 | 6 | 2 | | 9 | | | 7 |
| 8 | | | | | | | | |
| | 7 | 8 | | | 4 | | | |
| | 4 | 9 | 5 | | | | | 3 |
| | 5 | | | | | 7 | | 4 |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Argal / Inoiz

* Irudiko mendia / Pl., musika tresna

Prestatu / Lekuak

Zati hiru / Gisa

Tuberkulu mota / Garraio mota

Geneukake / Zabor, legar

Arrantza tresna / Herri handi

Uzbekistango hiriburua / Lastategi

Nerau / Kanpo, landa

Ogi puska / Gainerako

Oxigenoa

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Gizon hori ez zait gustatzen…




## hizki salda

Zuberoako 4 idazleren abizenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | K | S | D | K | J | U | D | L |
| H | T | R | E | T | I | S | A | L |
| X | E | T | A | U | O | M | V | K |
| A | D | C | T | E | X | J | A | O |
| H | D | R | E | I | L | K | N | U |
| O | I | H | E | N | A | R | T | H |
| U | S | F | K | E | F | J | I | M |
| Y | F | T | O | P | E | T | P | R |
| A | S | L | K | D | F | J | L | M |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | K | S | D | K | J | U | D | L |
| H | T | R | E | T | I | S | A | L |
| X | E | T | A | U | O | M | V | K |
| A | D | C | T | E | X | J | A | O |
| H | D | R | E | I | L | K | N | U |
| O | I | H | E | N | A | R | T | H |
| U | S | F | K | E | F | J | I | M |
| Y | F | T | O | P | E | T | P | R |
| A | S | L | K | D | F | J | L | M |

**Hieroglifoa:** ergela dirudi.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 2 | 1 | 8 | 4 | 3 | 6 | 9 | 5 |
| 9 | 8 | 3 | 7 | 6 | 5 | 4 | 2 | 1 |
| 4 | 6 | 5 | 1 | 9 | 2 | 3 | 7 | 8 |
| 2 | 1 | 4 | 3 | 7 | 8 | 9 | 5 | 6 |
| 5 | 3 | 6 | 2 | 1 | 9 | 8 | 4 | 7 |
| 8 | 9 | 7 | 4 | 5 | 6 | 1 | 3 | 2 |
| 3 | 7 | 8 | 6 | 2 | 4 | 5 | 1 | 9 |
| 1 | 4 | 9 | 5 | 8 | 7 | 2 | 6 | 3 |
| 6 | 5 | 2 | 9 | 3 | 1 | 7 | 8 | 4 |



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | M | | M | | M |
| | | | S | E | K | U | L | A |
| | | | | H | E | R | E | N |
| | P | | G | E | N | U | K | E |
| T | A | X | I | | A | M | U | A |
| | T | A | S | H | K | E | N | T |
| S | A | B | A | I | | N | E | U |
| | T | O | R | R | A | D | A | |
| G | A | R | A | I | T | I | K | O |

## asteko horoskopoa

**ARIES**

*martxoak 21-apirilak 21*

Hausnartzeko eta etorkizunerako erabakiak hartzeko bakarrik egon nahi duzula? Ondo dago, baina hori ez da inorekin haserretzeko arrazoia.

**TAURUS**

*apirilak 22-maiatzak 21*

Une egokia da aurretik egindakoaren emaitzak biltzeko. Harremanen bat hasi edo indartzeko aukera. Lan berriren bat aurkituz gero, zorte hobea izango duzu.

**GEMINI**

*maiatzak 22-ekainak 21*

Birmolda itzazu zure asmoak behar beste, arrakastatsuak izan daitezen. Ez da denbora galtzea izango, zure helburuak lortzen lagunduko dizu horrek.

**CANCER**

*ekainak 22-uztailak 22*

Esku artean duzuen horretan zuk egindakoak ez zaitu asetzen. Zure ustez, ez zaituzte kontuan hartu merezi zenuen beste. Ondo pentsatu guztia utzi aurretik.

**LEO**

*uztailak 23-abuztuak 22*

Segi gogor lanean zure helburuak lortzeko, gutxien espero duzunean saria eskuratuko duzu-eta. Udako egunek bart ahaztua zenuen zoriona ekarriko dizute.

**VIRGO**

*abuztuak 23-irailak 22*

Ez ibili bueltaka gauzekin eta gozatu orain arte lortutakoarekin. Estimatu daukazuna. Maitasuna datorkizu atean koskaka, udarako arratsekin batera.

**LIBRA**

*irailak 23-urriak 22*

Ondo dago jendearekin lan egitea gustuko izatea, eta traturako daukazun gaitasuna lantzea, baina ikas ezazu erabakiak zuk zeuk hartzen eta ondorioei aurre egiten.

**SCORPIUS**

*urriak 23-azaroak 22*

Oso pozik zaude zeure buruarekin eta zeuk lortutakoarekin. Erabili atsedenaldia egunerokotasunetik aldentzeko eta indarberritzeko. Oporrak behar dituzu.

**SAGITARIUS**

*azaroak 23-abenduak 21*

Ez etsi gauzak ez direlako izan zuk uste bezala, eta erabili atzerapen hori hausnarketarako. Ikasi zure akatsetatik asmoak hobetzeko.

**CAPRICORNIUS**

*abenduak 22-urtarrilak 20*

Zure arazoen errua ez da besteena. Pentsatu zer egin dezakezun horiek konpontzeko. Kontuz diruarekin! Momentu txarretan horren premia izango duzu!

**AQUARIUS**

*urtarrilak 21-otsailak 20*

Zalantza asko daukazu nahi duzunaren inguruan. Ez ezazu erabakirik hartu guztia argi eduki arte. Hausnartu lasai, aste honetan lagun berezi batek deitu egingo zaitu.

**PISCIS**

*otsailak 21-martxoak 20*

Orain artekoa ona den arren, ez lasaitu gehiegi. Gozatu, baina egin beharrekoa utzi gabe. Zaindu zaitez hondartzara joatean, eguzkia gogor dator ekialdetik-eta!

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Nazioartean.** UPV-EHU. Nazioarteko mugikortasun programen esparruko hainbat beka unibertsitate ikasleentzat. Epea: uztailaren 10a.

**> Ikerkuntza historikoa.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Ikerkuntza historikorako Gipuzkoako Foru Aldundiaren bekak. Epea: uztailaren 15a.

**LANA**

**> Udaltzain laguntzaileak.** Errenteriako Udala. 2009ko Madalenetan Errenteriako Udalean lan egiteko udaltzainen laguntzaileen hautaketa.

**> Kudeatzailea.** Txatxilipurdi Elkartea. Txatxilipurdi Elkarteak kudeaketa lanak egiteko pertsona bat behar du.

**> Udaltzain laguntzaileak.** Errenteriako Udala. 2009ko Madalenetan Errenteriako Udalean lan egiteko udaltzainen laguntzaileen hautaketa.Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoak 21 plaza betetzeko lan-poltsa osatzeko hautapen probetarako deialdia.

**EKINTZAK**

**> EHZ festibala.** Uztailaren 3, 4 eta 5ean Euskal Herria Zuzenean jaialdia Heletan (Baxe Nafarroa) izango da. Manu chao, Willis Drummond, The Bellrays, Emir Kusturica & The No Smoking Orchestra, Kalash l"Afro, Borrokan, Zura, Des-Kontrol, Deabruak teilatuetan, Che sudaka...

**LEHIAKETAK**

**> Dublin.** Eusko Jaurlaritza. Saria mikroipuin originalenak jasoko du, 700 euro baino gehiago balio duen bi asteko ingeles-ikastaroa Dublinen (egonaldia barne) eta Dublinera joan-etorriko hegaldia.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 6



**>Elgetako eta Aramaioko jaiei, jarraipen zabala**
**19:45/21:15/23:30**

*Goiena Magazinea* saioan jaiei tarte zabala eskainiko diete. Aramaioko eta Elgetako jaien txanda izango da astelehenean.

**13:15** Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Nere herria: Idiazabal
**15:45** Elkartasunaren bidean.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 7



**> Iban Garate gonbidatu dute 'Ilunpean' saiora**
**22:15**

Iban Garate 27 urteko aktorea eta telebista aurkezlea elkarrizketatuko du Jon Berezibarrek 'Ilunpean' saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Batel estropadak.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Iban Garate.
**23:00** Lamien artean.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 8



**> Jaiei eskainitako saio berezia eskainiko digute**
**22:15**

Aramaioko San Martin jaien eta Elgetako Ferixa Nagusiko jaien inguruko saio berezia eskainiko digute.

**13:15** Marrazki bizidunak Cloud Trotters.
**13:45** Kantari.
**14:15** Ikusmira.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean:Iban garate.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Nere herria: Idiazabal.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Elgetako eta Aramaioko jaiak.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 9



**> R.I.P talde arrasatearra protagonista**
**22:15**

Musikantoi saioan, R.I.P. Arrasateko talde mitikoaren gaineko erreportaje dokumentala eskainiko digute eguenean.

**13:15** Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Elgetako eta Aramaioko jaiak.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Elkartasun bideak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 10



**>Kantari saioan, Bergarako gazteak nagusi**
**21:15**

Uztailaren 10etik aurrera, astelehenetik egubakoitzera, Bergarako gaztetxoen txanda izango da Kantari saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Elgetako eta Aramaioko jaiak.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> 'Uda Giroan' saioan hainbat zozketa egingo dituzte**
**10:00-12:00**

Astelehenetik egubakoitzera, *Uda Giroan* saioan hainbat zozketa egingo dituzte 11:30tik aurrera: Donostiako Aquariumerako sarrerak, Musakolako igerilekurako sarrerak eta Euskalteleko kamisetak. Parte hartzeko, 943 25 05 05 telefonora deitu edo *irratia@goiena.com* helbidera mezua bidali.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**TWITTER ETA TELEBISTA**

# Twitter telebista bidez zuzenean, ETB3ko 'Nick Dut Nik' saioan

*Nick Dut Nik* saioak iraun zuen bitartean, telebistan zuzenean ikusi ziren ikusleek Twitter bidez bidalitako mezuak

**OIHANE AGIRRE** > ARRASATE

ETB3k eta *Nick Dut Nik* ekoizten duen Factoria Crossmediak esperimentu bitxia egin zuten, uztailaren 1ean emititu zen saioan. *Nick Dut Nik* saioak irauten zuen bitartean, ikusleei aukera eskaini zieten Twitter bidez mezuak bidaltzeko. Orain arte SMS mezuen bitartez ikusi ahal izan ditugu hainbat telebista saiotan ikusleen mezuak. Twitter erabilita, mezuak doanekoak dira eta, gainera, saioa amaitu arren sarean jarrai dezake eztabaidak. Ideia ere sarean sortu zen: konturatu ziren internauta askok telebistaz ikusten ari ziren saio horren inguruko komentarioak egiten zituztela sarean.

**270 MEZU BIDALI ZIREN**

Lehenengo esperientzia aitzindarian, jasotako mezuen %25 ikusi ahal izan ziren telebistaz. Guztira 270 mezu bidali zituzten 160 erabiltzailek. Europa mailako lehen esperientzia izan da hori. Erabiltzaileei telebistako letraren tamaina txikiegia iruditu zitzaien arren, esperientzia positiboa izan zen.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**PLANETARIUM BERRIA**

Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak. Asteartetik ostiralera, 18tan.
Uztailak 7, 8,9 eta 10 ean:
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia, 18:00 (euskeraz).
**Kartoizko Suziriaren sekretua:** Haurrei zuzenduta. 19:00 (gazteleraz)
**Biziaren jatorria:** Gure unibertsoaren sorrera, eta biziarena lurrean. 13:00 (gazteleraz)
**Itsua izar begiekin:** Asti eta maltzurra baten istorioa. 13:00 (euskeraz) / 11:30 (euskeraz) / 12:00 (euskeraz) / 17:00 (euskeraz)

**BESTE EKIMENAK**

Egunero 20 ekitaldi baihio gehiago antolatzn ditugu, museoko sarreran barne.

**UDAKO ORDUTEGIA**

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 20:00etara.
Larunbata igande eta jai egunetan: 11:00etatik 20:00etara.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

## asteburuko albuma



**Chateaubernardeko anai-arrebak.** Aurten hamar urte bete dira Oñati eta Chateaubernard udalerriak senidetu zirenetik. Hala, senidetze Batzordeak gonbidatuta, Oñatin izan dira egunotan hitzarmena berresteko. Lehenik eta behin, egubakoitzean harrera ofiziala egin zieten udaletxean (argazkian); horren ostean herriari bisita egin zioten eta afaria izan zuten. Herenegun, Arrikrutz eta Arantzazu ikusteko aukera izan zuten. Bukatzeko, atzo, domeka, egun handia ospatu zuten. Hala, Santa Ana antzoki kanpoan, Oñatiko senidetzeen gaineko eskulturaren alboan, hitzarmena berretsi zuten bi udaletako ordezkariek.



**Garagardo jaia Oñatin.** Aloña Mendik Garagardo festa egin du asteburuan. Plazan jarritako karpan txerri ukondoak, saltxitxak eta oilaskoa jateko aukera izan da, eta garagardo mota desberdinak edatekoa. Aloñako presidente Anton Intza pozik azaldu da herritarrek ekimenari emandako erantzunarekin. Giro ederra egon ei da egunero –eguenekoak egin omen du gora–, eta kontsumoari dagokionez ere beste batzuetan baino apur bat handiagoa izan omen da. Sail desberdinen arteko harremana sendotzea ere lortzen ei da jaiarekin.



**Espoloiko hitzorduak.** Joan den egubakoitzean hasi zen Udalaren *Ostiral Musikalak* programa Bergarako Espoloian. Denboraldia estreinatzeko arduraduna Valladolideko Bluedays talde eskarmentoduna izan zen (Ñaco Goñikin ere aritu izan dira). Blues eta soul emanaldi bikaina eskaini zuten.



**Cockney Rejects.** Aurten Aramaioko jaietan nazioarteko talde bat ikusteko aukera izan dute. Hala, Ingalaterrako punk-oi!aren sortzaileetako bat den Cockney Rejects igo zen egubakoitzean agertokira. Adin askotako entzuleek gogoz jarraitu zuten emanaldia.

## kuxkuxeroa



Jon Berezibar

# Debozio berezidun erromeriak

Kuxkuxerook erromeriaz erromeria jardun behar izan dugu asteburuan kuxkuxeatzen. Santuenganako deboziozs... ez dut uste. Atzo goizeko xirimiriarekin *rocioa* etorri zen eta Arruena soineko koloretsuz beteta eta Eroskiko parkina kotxez josita. Ordu bertsuetan, baina *faralaez* baino mahoiz, bergararrak ikus genitzakeen aldatsean gora San Martzialerako bidean. Trajeak diferente baina erromeria erromeria da. Polita da San Martzialeko giroa. Arrasaten halakorik ez dugu eta benetan jai herrikoia da leku paregabean. Inbidia ematekoa. Eta erromeriez gabiltzala, Gatzaga aldera ere jo beharra dugu aspaldiko partez han Dorletako santutegi parean jai berri eta polita egin zuten zapatu gauean domekako ordu txikiak arte. Eta azkeneko erromeria kazetari eta kameralariei ekitaldiz ekitaldi tokatzen zaiena. Ia bi baja izan ditugu asteburuan, argazkilaria frontoian pilota batek jo zuen eta kameralaria Elgetan asto batek. Horiek erromerien kaltedunak. Deboziok martiriak eskatu ohi ditu... beraz, horra bi, sustoa besterik ez bada ere. Orain erromeriak Iruña alde horretan tokatzen dira eta autobus prozesioak beste santu baten izenean. Gainontzekoei astelehena tokatzen zaigu ezinbestean.

**"Kuxkuxerook erromeriaz erromeria jardun behar izan dugu oraingo asteburuan"**

ZORIONAK!

**Internet bidez**
Goiena.net atarian sartu.
Aukeratu herrita eta datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali
*sailkatuak@goiena.com*
helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## zorion agurrak


ARRASATE
**Balta Rodriguez**
Ekainaren 30an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Maite zaitut, maite zaitut, pila-pila-pila... Besarkada handia eta urte asko bete itzazula, denon partetik; bereziki Amalur eta Gaizka.


ESKORIATZA
**Aritz Zubia Altuna**
Ekainaren 30ean, 7 urte bete zituen. Zorionak eta muxu bat etxekoen partetik. Ondo pasatu Eskoriatzako festatan. Eta badakizu... Eskoriatzako etxafuegoak.. ahhh ez daude!


ARETXABALETA
**Maren Garai Santamaria**
Uztailaren 1ean, 3 urte. Zorionak, potxola! Patxo handi bat etxeko guztion partetik, bereziki Ainara eta Uxuen partetik.


BERGARA
**Iraia Karza Gimber**
Uztailaren 1ean, 2 urte bete zituen. Zorionak etxekoen partetik eta bereziki bere ahizpa Juneren partetik.


ARRASATE
**Olatz Martinez Zabala**
Uztailaren 4an, 3 urte. Zorionak, printzesa, maite zaitugu.


BERGARA
**Mikel Unamuno Andueza**
Uztailaren 4an, 2 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure eguna. Txokolatezko patxo pila bat familia guztiaren partetik.


ARRASATE
**Sara Yan Azkarate**
Uztailaren 5ean, 4 urte bete zituen. Zorionak eta patxo handi bat danon partetik!


ARETXABALETA
**Miren Igartua**
Uztailaren 5ean, 27 urte. Aupa, potxola, ondo pasatu zure urtebetetze eguna lagunekin eta familixakuekin. Zorionak. Holan jarraitu, alai eta umoretsu. Estimatzen zaituen Oñatiko lagun bat.


OÑATI
**Mireia Bikuña**
Uztailaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak, AC-DCera! Morenua eta pastak ez die bukatzen, e! Lankideak.


ARETXABALETA
**Estitxu Unanue Iturricastillo**
Uztailaren 6an, 15 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztion partetik.


ARETXABALETA
**Oihane Agirre**
Uztailaren 6an, urtebetetzea. Zorionak. Kantari bukatu da, baina etorriko da beste bat. Animo! Lankideak.


ARRASATE
**Valeria Azurmendi**
Uztailaren 7an, 6 urte beteko ditu. Zorionak tia Maite, tio Paco, birramona Maritxu eta familia guztiaren partetik. Patxo handia!


BERGARA
**Maddi Lazkano eta Jone Arrieta**
Uztailaren 7an, 5 urte beteko dituzte. Zorionak pittinak eta gora San Fermin! Patxo goxo pila bat guztion partetik eta txokolatezko beste bi Markel eta Paulen partetik.


ANTZUOLA
**Ander Reifs**
Uztailaren 7an, 5 urte beteko ditu. Zorionak eta patxo handi bat udako lagunen partetik. Pablo, Juan eta Maddi.


ARETXABALETA
**Eider Jauregi**
Uztailaren 8an, 8 urte beteko ditu. Zorionak tia Maite, tio Paco, birramona Maritxu eta familia guztiaren partetik. Patxo handia!


BERGARA
**Haritz Gomez de Balujera Oregi**
Uztailaren 8an, 6 urte beteko ditu. Zorionak etxeko guztien partetik.


ARETXABALETA
**Manex Larrañaga Sarriegi**
Uztailaren 8an, urtebete. Zorionak eta patxo handi bana zure lehen urtebetetzian! Ondo pasatu eguna familixako danon partetik.


ANTZUOLA
**Usoa Agirre**
Uztailaren 8an, urtebetetzea. Zorionak, pajaro! Noiz da Guitar-heroko hurrengo txapelketa? lankideak.


ARETXABALETA
**Loraia Ortiz**
Uztailaren 10ean, 38 urte beteko ditu. Zorionak, Loraia! Espero dou egun hau doblez ospatzia, eta triplez laneko lagun minekin be bai. Zure zain egongo gare kafe doblea hartzeko. Muxu handia, lankideen partetik.


ARETXABALETA
**Naroa Urreta**
Uztailaren 10ean, 5 urte beteko ditu. Zorionak, maitxie! 5 urte bete dozu, handitzen zabitz gu konturatu barik. Etxekuen partetik egun zoriontsu bat izan dezula. Besarkada izugarri bat zuretzat.

## jaiotakoak


**Jon Martin Valor**
Bergara > 2,800 kilo. Ekainaren 27an. Gurasoak: Ana (Arrasate) eta Job (Oñati). Argazkian, Jon Martin jaioberria, amarekin.


**Aner Lizarralde Sainz**
Bergara > 3,340 kilo. Ekainaren 30ean. Gurasoak: Amaiur (Bergara) eta Josetxo (Bergara). Argazkian, Aner jaioberria, amarekin.


**Ikebe Jauregi Ibabe**
Aramaio > 3,750 kilo. Ekainaren 30ean. Gurasoak: Alazne (Aramaio) eta Joseba (Aramaio). Argazkian, Ikebe jaioberria, lehengusinekin.


**Sara Lazpiue Moreno**
Bergara > 3,550 kilo. Ekainaren 29an. Gurasoak: Naiara (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Sara jaioberria, sehaskan lo.


**Ander eta Maitane Sergio Garcia**
Aretxabaleta > Anderrek 2,500 kilo eta Maitanek 2,870 kilo. Uztailaren 1ean. Gurasoak: Conchi eta Julio. Argazkian, sehaskan lo.


**Ibon Pescador Etxeberria**
Arrasate > 3,800 kilo. Uztailaren 1ean. Gurasoak: Ainara (Bergara) eta Joseba (Bergara). Argazkian, Ibon jaioberria, amarekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO
Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-07-06

**Iban Garate** > Komunikatzailea eta aktorea

# "Kontrola gustatzen zait, bidea jarri eta segitzea"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Berba-etorri etengabearekin eta kamera aurreko jatortasun berberarekin hartu gaitu Iban Garatek. Lanpetuta, baina pozik eta oraingoan kameren atzean dabil lanean, film dokumental baterako ekoizpenean. *Errazu* telebista saioarekin amaitu eta udazkenean estreinatuko ei dute flischari buruzko film hori.**

**Gidoiak idatzi bai, baina zeu ez ei zara gidoitik ateratzen den horietakoa.**

Esaten didate inoiz ez naizela aztoratzen; ea zergatik egunen baten ez naizen zoratzen. Ez dut edaten, ez dut erretzen... ez zait kontrol-ez hori gustatzen. Ez diot sekula egingo ez dudanik, baina ez zait gehiegi gustatzen. Aspergarri itxura ere izan dezaket, baina gustatzen zait bide bat jarri eta hortik joatea. Hala ere, egunen baten norbaitek bidetik atera eta plan aztoragarri bat proposatuko balit, ez nioke ezetzik esango. Norberak bere burua egunetik egunera ezagutu behar du eta jakin. Irekita baina, edozertarako nago, denetarik probatu beharra dago!

**Beraz, aspergarria zara... Ez da oso propaganda ona zure buruarentzat.**

Ez, ez, nik diot besteek aspergarritzat har nazaketela eta ez ni aspergarria naizela! Ni ez naiz taberna batean kristoren espektakulua emango duten horietakoa. Nire dibertimenduak beste gauza batzuetara daude lotuak. Lagunartea asko gustatzen zait eta benetan baloratzen dut. Bazkari edo afari baten lagunekin egotea ikaragarri gustatzen zait, baina goizeko bostak arte kalean egotea... neu ez behintzat.

TEST-A

**Jaioterria:** Azkoitia. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Ekonomia ikasten hasi nintzen Deustuan eta gero Iruñean Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi dut. **Bizitzeko leku bat:** Azkoitia, baina gaur egun lan kontuak direla-eta niretzat komenigarriena Donostia da. **Aurkezle bat:** Gauzak ongi komunikatzeko hitz gutxi behar dituena. **Azken bidaia:** Dokumentala grabatzeko Islandian eta Mexikon izan gara. Leku ikaragarriak biak ala biak.

**Izan liteke oso gaztetatik ezaguna izan zarelako telebistarengatik?**

Horrek ere baldintzatzen du, baina ez gehiegi. Halakoak esaterakoan ematen du kalean gabiltzala eta ez gaituztela bakean uzten eta ez da horrela. Egia esan, ez dut gogokoegi, esan dezagun, telebistako laneko zortzi orduak amaituta nolabait "lanean" jarraitu behar izatea. Baina hori telebistak duen gauzetako bat da, ezinbestean onartu egiten dut eta bestelako arazorik ez dit sortzen. Erantzun txarrik ere ez dut uste sekula ere eman dudanik. Beste kontu bat da kaletik norbait oihuka hasten bazaizu. Horiek ez dira moduak.

**Realaren partidu erabakigarri baten ere ez zaitugu asaldaturik ikusiko?**

Epailea pasatzen denean ez dago kontrolari eutsiko dionik. Denok gara gizakiak. Futbolarena, gainera, berezia da ze aitarekin joaten naiz eta bada modu bat harekin zerbait konpartitzeko; bi igandetik behin Anoetara joatea polita da.



**LANA** Lana eta ikasketak uztartu ditu beti Garatek. JON BEREZIBAR

## ai, ene!




### M&M's erantzungailua

M&M's goxoki marka ezagunez eginiko erantzungailua asmatu dute. Horrela, etxe behean lagunari aspertuta itxaroten daudenek, zer egin izango dute. Batzuetan, goxoki batzuk nahikoa izaten direa eta, bizitza gozoagoa egiteko.

www.scitec.nosdom.com

## biharamuna

Marijo Deogracias

### Alardetik alardera

**Gemma Zabaleta**, gizarte politiketarako sailburua, "duten aniztasunagatik, Irungo jaien pluraltasunari babesa adieraztera" joan ei zen Irunera. Nik dakidala alarde tradizionala besterik izango da, baina anitza ez behintzat. Auzitegi Gorenaren iazko azkeneko epaiaren arabera, bere bazkideak diskriminatzen ez dituen bitartean ez dago diskriminaziorik, baina alarde tradizionala emakumeekiko baztertzailea da eta berdintasun ikuspegia ahaztu zuen sailburuak Irunen. Antzuolako mairuaren alardea ez da Irungoa bezain mediatikoa, baina aurten sorpresaren bat egongo ei da osaba **Santik** komentatu didanez. **U2**ren, **Bono**ren, **Adamen**, **The Edgen** eta **Larry**ren kontzertuarekin flipatzen segitzen dudan honetan, asmatu ezinda nabil ze berritasun izango den, baina onerako izan dadila! Gurean behintzat ez zaigu okurritu-eta emakume eta gizonen artean lanak era baztertzaile horretan banatzea. Baina, eta, mairua izateko emakume boluntariorik agertuko balitz? Azkeneko urtean zehar Alardea biziberritzeko lanean ibili den taldeak erronka polita izango luke.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +20 | +15 |

Estalita egongo da ipar partean eta noizbehinka euri langar pixka bat egingo du, batez ere egunaren lehen partean.

www.euskalmet.net





Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, GIPE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, GIPP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, GIPL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, GIPJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (2 sms)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) I AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) I AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) I ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) I ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) I BELAIR
Haizea (Ken7) I HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) I HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken 7) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) I JOKIN
Kaixo (Urtz) I KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) I ITOIZLAU
Laztana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itoiz) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) I MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) I NICA
No time for love(Hertzainak) I NOTIME
Salve (La Polla) I SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATXO1
Txus (La Polla) I TXUS

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA
Galiziara noa (Oskorri) I GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) I GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) I HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) I IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) I LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) I MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) I NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) I NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) I OIAMA
Tirauki (Oskorri) I TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) I TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) I TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) I ZAINDU

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

LOGOAK (2 sms)
KODEA




OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu